

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

2 positibo berri
2307 positibo guztira*

283 hildako

61 ospitalizatuta

*Hernanin 55 Astigarragan 20

NAFARROAN

191 positibo berri

8082 positibo guztira

500 hildako

127 ospitalizatuta

Sendatuak EAE: 15678 Naf: 3550

URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA



Krisi garain, arrisku, aukera eta erronkak

HERNANI
EKONOMIA

2-3



Indarkeria matxista, eraldatua

URUMEA
BERDINTASUNA

14-15



Etxez etxeko zerbitzua edota irekiera, bailarako komertzioek

URUMEA
MERKATARITZA


7-9



Ateak itxita

Astearen hasieran bazirudien astelehenean atek irekitzeko moduan izango zirela Batxiler eta Lanbide Heziketako zentroak. Baina, azkenean, irekiera atzeratzea erabaki dute agintariek. Eskoletan, eskola kontseiluek ere zeresana dutela aldarrikatu dute.

10



Fisioterapia zentroak irekita, berriro

ASTIGARRAGA-HERNANI
KIMERA

11

Itxialdi garaian sortutako, 'Zaintza taldea'

URUMEA
ERAGILEA/ELKARTEA

6

Iriartenea eraikineko lanak bukatuta, auzolanerako deia egin du Udalak

Tifanitxo, Zentroa edota Gaztetxea bezala ezaguna izan da Iriartenea eraikina, 1555ekoa. Duela lau urte, hormak eta teilatua konpondu zitzaizkion, eta orain, barrualdea egokitu da. Besteak beste, lehen pilotarien aldagela zen horretan komun

publikoa egin da. Margotu eta txukuntzeko azken lanetarako, berriz, auzolanerako deia egin da.

GOIZUETA
UDALA

4

Hondakin haundien bilketa, berriz

Konfinamendu egoera ezartzean, Udalak eten egin behar izan zuen tamaina haundiko tresnen bilketa. Martxan jarri du berriro, asteartean.

ASTIGARRAGA
UDALA

5

CANEXION
Maskotenzako kalitatezko denda eta aholkularitza

Albaitari-klinika berria

Akarregi poligonoa, 10. Hernani
943 04 87 83

facebook.com/Canexiona

«Krisi honek hainbat arrisku, erronka eta aukera sortzen ditu, eta horien artean jolastea tokatzen zaigu»

Ekonomilaria da Irati Tranche Otxandorena hernaniarra, eta Irungo udaletxean egiten du lan. Krisi hau 2008koa baino okerragoa izan daitekeelakoan dago, baina ereduak eraldatzeko aukerak ikusten ditu.

HERNANI EKONOMIA

Osasun krisitik ateratzen ari garen honetan, ekonomikoa datorrigu gainera... Jabetzen gara? Niretzako badira bi gauza. Lehenengo egon zen, edo dago, bizitzak erdigunean jartzeko momentua, osasun kriterioak gailentzen direna, eta hor fida-tu egin behar dugu osasun adi-tuez. Eta gero, garrantzizkoa da niretzat orain, eta hasieratik, kontziente izatea etorkizunean bizitzak erdigunean jartzeko beste aspektu batzuk hartu beharko direla kontuan. Soziologikoak, ekonomikoak... Orain, ekonomia gelditu egin da, baina hemendik ateratzean, bizitzak jarraitu egingo du, eta ekonomiak badu hor erronka bat: nola eman buelta honi, eta nola jarri bizitzak erdigunean, lehendik ere bazegoen prekaritatea gehiago sakondu baitu honek. Errealitate bat sortu behar dugunez, pentsa dezagun nola jarri nahi ditugun bizitzak erdigunean, zein ekonomia eredu sustatu nahi den. Izan beharko du ekonomia feminista bat. Ez dadila izan lehengoa, bai baita-ki-gu ez duela funtzionatzen.

Langabeziak gora egin du otsailetik martxora; Gipuzkoan, %9,9, 3.072 langabe gehiagorekin, eta Nafarroan %9,98, 3.390 gehiagorekin. Apirileko datuen faltan, zer espero daiteke aurrerantzean? Oraindik ezin jakin, deseskala-tzea nolakoa izango den eragin zuzena daukalako. Baina, uste dut dudarik ez dagoela, ondorio

sakonak izango dituela. Batzuk 2008ko krisiarekin konparatzen dute eta badirudi hainbat datu daudela esanez, ezetz, gorreragoa izango dela. Hasieran esaten zen, uste zenean bi aste edo hilabeteko kontua izango zela, ekonomia errekuperatuko zela 'v' formarekin; momentu batean gelditzen da, baina errekuperazioa da paraleloa, eta berriro bueltatzen da hasierako putu horretara. Baina, dagoeneko, ikusten ari da ezetz, askoz ere ondorio sakonagoak izango dituelako. Langabeziarekin ere ikusten ari da. Aste honetan sinatu dute ERTEak luzatzea

«Politika fiskalak aldatzea bada aberastasuna berrantolatzeke modu bat, eta berdintasuna sustatzeko»

ekaina bukaera arte; zalantzan dago ea sei hilabetez langileak mantendu beharko diren, ez dakitelako bideragarria izango den... Badirudi errekuperatzea kosta egingo zaigula, eta honek sortuko duela nahiko egoera larria. Eta ez zenbaki makroekonomikoetan bakarrik, baizik eta, batez ere, bizitzetan. Orain emandako diru-laguntzak dira nolabait kolpea leuntzeko, ekonomia zeron baitago, baina erronka da, bai sektore publikoetatik eta baita gizartetik ere, zer egiten dugun epe erdira edo

luzera azalduko diren ondorio negatibo estruktural horiei aurre egiteko.

Zein eredu nahi dugun pentsatzeko momentua dela diozu. Krisi honek ere, eredu kapitalistaren gabeziak agerian utzi ditu, eta ekonomia sozial eraldatzailearen aldeko apustua egiten ari da zenbaitetan. Zer esan nahi da?

Kapitalismoan helburua irabaziak badira, ikusi da ez dela jasangarria, eta kontrajarria dagoela erdigunean jarri nahi diren bizitza horiek sostengatzearekin. Beraz, niretzako bada erronka zein politika garatzen ditugun. Eta politikaz ari naizenean, ari naiz erakundeetaz, baina baita ere gizarte moduan egiten ditugunez, enpresa txikitatik edo kooperatibetatik, gure egunerokotasuneko kontsumo ereduetatik... Azkenean, gizartean parte hartzen dugu denok. Hor bai, erronka bada egitea ekonomia bat pertsonak erdigunean jarriko dituen. Eta ekonomia sozial eta eraldatzaileak hori dauka, pertsonak jartzen dituela erdigunean eta hortik egiten dela ekonomia. Behar dugunetik sortzen ditugu ekintza, enpresa, zerbitzu desberdinak. Baina ez litzateke egin behar modu atomizatuan, bakoitza bere lekutik. Erronka da, nire ustez, eraldaketa bat egitea lortzea, eta hori izatea ekonomiaren zentroa.

Hain zuzen, agerian geratu dira lanpostu batzuek, zaintzari lotuak adibidez, eman nahi ez zitzaizkien garrantzia dutela. Hori da ildo? Norbakoak ere prest gaude eredu aldaketa horretarako?

Badira gauza desberdinak hor. Batetik, krisi honek mahai gainean jarri du zaintzaren garran-



tzia. Baina, oraindik erronka bat da, eta lehendik datorren gauza bat da, ikusaraztea zenbat jende bizi den bazterretan, sistematik at bezala; ez aukeratu dutelako, baizik eta behartuta. Badaude hor hainbat politika, lege eta neurri, zuzenean pertsona batzuk diru-laguntzetatik kanpo uzten dituztenak, eta krisi batean, prekarizazioa areagotzen den heinean, pertsona horiek askoz ere modu gordinagoan pairatzen dute egoera. Eta horietako asko zaintza lanetan aritzen dira! Egia da ikusarazi dela zaintza mota batzuen garrantzia, baina uste dut ikusarazteko badaudela oraindik beste asko. Ez bakarrik lanbide ikuspegitik begiratuta ulertzen ditugun zaintza lanak, baizik eta gure erlazioetan gertatzen direnak. Krisiarekin, eta nor bere etxean geratuta, mahai gainean jarri da zein garrantzizkoa den batak bestea zaintzea gure eguneroko harremanetan. Ea lortzen dugun, krisi hau pasatzean, ikasi dugun horri jarraipena eman eta horretan sakontzea. Hor badugu

erronka. Eta modu zuzenagoan ekonomiari lotuta, gure ardura da eguneroko bizitzan zein erabaki hartzen ditugun, ondorioak baitituzte ingurukoengan eta ekonomia sisteman. Errudun sentitu gabe, baina jabetu gaitzen, bakoitzak ahal duen neurrian, egunerokoan sartuta ez baita hain erraza.

Tokian tokiko udaletxeak ari dira ekonomia suspertzeko laguntzak ematen, baina, iritsiko dira denerako?

Noski, laguntzak laguntzak dira, momentuko partxeak. Beharrezkoak dira guztiz, baina beren mugak ere badauzkate. Iruditzen zait, momentu honetan, erakunde publikoek badutela ardura kolpea arintzeko eta gizartea martxan jartzeko. Ardura beti baldin badute, orain, sektore pribatua hain geldirik dagoenean, are eta garrantzia handiagoa hartzen du. Eta erakunde publikoen helburua bada birbanaketa, orain inoiz baino gehiago behar dira laguntzak.

Kronika

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 08 99
688 660 714

Lege gordailua:
SS-1469/2018
ISSN: 2659-5036

Eposta:
kronika@kronika.eus,
astigarraga@kronika.eus,
urumea@kronika.eus eta
publi@kronika.eus.
www.kronika.eus

Lan-taldea:
A. Arbelaitz, O. Egaña,
I. Goñi, L. Goñi, B. Los
Arcos, J. Osa, M. Ramirez
de Alda, I. Santa Cruz
eta J. Zubitur.

Argitaratzailea:



Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 27 99
Eposta: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua.



**DOBERA BAZKIDEAK
KRONIKALARIAK**

TOKIKOM





Irati Tranche ekonomilaria lantokitik lanean hasi da, pixkanaka.

Baina ez da ahaztu behar laguntzak ez direla konponbide bat, baizik eta momentuko partxe bat, eta iristen direla iristen diren lekura. Beraz, berriz bueltatzen gara dauzkagun erronketara: sustatu nahi dugun ekonomia eredu aurrekoak, epe ertain eta luze-ara sortu nahi dugun gizarte eta bizitza eredu aurrekoak.

Honek guztiak, gainera, udal aurrekontuetan izango du eragina. Irungo udaletxean aritzen zara zu lanean. Nola egin ahal izango zaie aurrekondeak?

Udaletxeek daukaten aurrekontua egoera ekonomikoarekin guztiz lotuta dago, alde batetik, aurrekontuaren zenbatekoagatik, lortzen diren diru-sarrerak lotuta baitago. Eta argi dagoena da, orain egoera ekonomiko delako-eta, diru-sarrera gutxiago egongo direnez, aurrekontuak murriztu egingo direla. Zenbatekoa izango den eragina, ikusiko da. Baina herritarren diru-sarreretatik sortzen dira, eta hauen egoera ekonomiko okerragoa den heinean, diru-sarrerak jaitsi egingo dira. Baina, bestetik, errealitatea ere aldatu da, eta erakunde publikoetako aurrekontuak badira errealitatearen isla, edo izan behar lukete errealitatean dauden beharren isla. Gizartearen lehentasunak, beharrak, aldatu dira. Erakunde publikoen hasierako lana da premia-erantzutea. Bai-

na orain bada momentua beste lanketa prozesu bat martxan jartzekoa, aztertzeko zein ondorio izango ditugun epe ertain eta luzean, eta nola egin beharko zaion aurre horri aurrekontuetatik, zein proiektu eta zein politika berri beharko diren.

«Zaila da, sistemaren logika aldatzea litzatekeelako, eta hori ez da erraza»

Aipatu duzu 2008ko krisiarekin alderatu dela hau, eta okerragoa ere izan daitekeela. Ezkorregia da ikuspegi hori edo hala da erraliateata?

Ezaugarriak ez dira berdinak. Orain, bat-batean, birusaren ondorioz, ekonomia geldituarazi egin da. Baina, kontziente izan behar dugu bagentozela joera batetik, bai nazioarteko mailan eta bai plano lokalean, lotuta baitaude biak; krisia hor zegoen. Adibidez, zorra erabili izana 2008ko krisiari aurre egiteko mekanismo bezala; horren ondorioak oraindik hor daude eta larriak izaten ari ziren. Azken asteetan nazioarteko erakundeak esaten ari dira lurralde batzuei zorraren zati bat barkatuko dietela, beste batzuei dirua emango zaiela inolako baldintzarik gabe, nahiz eta badaukiten hilabete batzuetara jarriko direla... Sistemaren krisia hor zegoen, eta horrelako gauza bat gertatzean, dena pintzekin heldu-

ta zegoenean, krisiak eragindako hori gehiago ikusarazten da eta kolokan jarri. Ez dakit 2008koarekin alderatu daitekeen, baina badirudi larria izango dela, ez bakarrik orain sortu dena, baizik eta bazetorrena. Honek areagotu eta ikusarazi egin du.

Berriro zorpetzea, edo Europako lurraldeen artean adostasunik gabe nork bereari aurre egin beharra planteatu dira. Badago aukerarik mekanismo horiek aldatzeko?

Hori arrisku bat da. Beste erronka bat hor dago: nola egin aurre honi eta nola egin borroka, berriro ere mekanismo berdinak errepikatu ez daitezten. Uste dut orain kontzienteago garelako 2008ko krisiaren ondorengo politikak sortu zutenaz, krisitik atera ginela esan arren, gure bizitzetan hainbat ondorio izan baitzizuten: prekarizazioa, lan-baldintzen okertzea, legeen aldaketa... Iru-ditzen zait hor gizarte eta norbanako bezala badaukagula borroka bat. Ikusi beharko dugu nola, baina ahal dugun heinean saiatu behar dugu erakundeetatik lortzen ahalik eta kalte txikiena egiten duten politikak. Zaila da, sistemaren logika aldatzea litzatekeelako, eta hori ez da erraza.

Udazkenean birusaren beste gorakada bat espero omen da. Prest gaude berriro ere konfinatuta egoteko?

Inoiz bizi izan ez ditugun gauzak dira, denok gaude gertatuko denaren zain, eta bakoitzak bere teoriak dauka. Baina iruditzen zait garrantzizkoa dela, ekonomiaren ikuspegitik, eszenario desberdinak maneiatu eta okerrean jartzea, pentsatzea beharbada gehiago beharko dela diru-laguntzen aldetik, eta gizarte bezala zein mekanismo beharko ditugun gure bizitzak ahalik eta baldintza onenetan mantentzeko. Eta gero, egunerokoan ikusi beharko da. Argi dago berriro ere etxean geratu beharko bagenu egoera zailduko dela oraindik eta gehiago. Baina begiratu diezaiokugu izutik, edo erronka ikuspegi batetik.

Batzuk salatu dute osasuna arriskuan jarri izana ekonomia salbatzearen aitzakian; beste batzuk, gehiegizko neurriek ekonomia hondoratu dutela. Aurkitu daiteke oreka?

Ekonomia niretzako ez dago bizitzatik aldentuta. Ekonomia bizitzaren zati bat da, eta osasunik ez badugu, ekonomiarik ez dago. Oreka... Ez dakigu. Hasieran esan dugu, bizitzak erdigunean jartzea bada osasuna egin den guztiaren inguruan... ez dakit, ez daukat irizpideak. Momentu batean erabaki horiek

«Erakunde publikoetako aurrekontuak badira errealitatearen isla, edo izan behar lukete errealitatean dauden beharren isla»

hartu ziren, eta ekonomilari bezala aztertu beharrekoa da zer egin dezakegun hortik. Ez delako osasuna batetik, ekonomia bestetik, soziologia bestetik. Ekonomia erlazio pertsonalak ere badira, gu gara, eta hortik ekin beharko diogu.

Halabeharrez telematikoki lan egitea ohikoa bihurtu da eta sindikatu batzuek alerta piztu dute, enpresa batzuentzat izan daitekeelako aurrezteko modua, langileen eskubideen kaltetan. Horren arriskurik ikusten duzu?

Segun eta nola egiten den. Erabiltzen bada hau kostuak gutxitzeko, seguru asko arazo izango da eta badago arriskua langileen egoera sozioekonomikoa okertzeko. Egiten bada, aldiz, bizitzak errazago kontziliatzeko, ona izan liteke. Aldaketak daudenean, errealitatea guztiz aldatu daiteke aldaketa horiek hartzeko erabiltzen diren neurrien baitan. Uste dut krisi honek, aukeratu ez dugun heinean, hainbat arrisku, erronka eta aukera sortzen dituela, eta horien artean jolastea tokatzen zaigula, borrokatzea eta pauso bat aurrera ematera ausartzea.

Tokiko garapena sustatzeak garrantzia hartu badu ere, aipatu duzu ekonomia lokala eta globala elkarri lotuta daudela. Europako ekonomiak jaso duen kolpeak nola eragin diezaguke?

Alde batetik, dena lotuta dagoen heinean, Europar Batasunetik emandako laguntzekin: zuzenak izango ote diren, edo zorra haundituko duten... Horrek erakar dezake mugak jartzea. Nazioarte mailari buruz aritzea zailagoa da niretzat, baina horrek ez du esan nahi ez daukagunik tarte bat. Kontziente izanda ere agian marko hori zailduko dela, sorkuntzatik egiten dira beste politika batzuk. Gero eta askatasun haundiagoa izan, orduan eta errazagoa, noski. Baina uste dut gauza asko egin daitezkeela tokiko garapenetik eta tokiko politiketatik, nahiz eta markoa

ideala ez izan. Badago zeregina eta horri heldu behar diogu. Eta ari dira gauzak sortzen. Uste dut sormen haundia dagoela tokiko politiketan, gauzak beste modu batera bideratzeko.

Diozu dena ez dela erakundeen esku utzi beharrekoa. Baina, kontziente gara? Konfinamenduan internet bidezko erosketek gora egin dute...

Bakoitzak gure buruari eskatu behar diogu eskatu diezaiokuguna. Uste dut orain gero eta kanpaina gehiago egiten direla eta kontzientzia badagoela, erosketak tokiko dendetan egitearen garrantziaz. Edo banaketa enpresa horien atzean daudenen lan-baldintzak babestearenaz. Krisi garaian gauza horiek ere azpimarratu dira. Ikusiko dugu. Hortxe, beste erronka bat.

Zer egin dezake norbanakoak?

Apuroa ere ematen dit. Kontzientzia naiz kontraesanetan erortzen garelako egunero, baina kulpasentimendutik ezin dugu bizi, eta onartu behar ditugu horietako batzuk, eta aldi berean saiatu ahalik eta koherenteenak izaten bakoitzak sinesten duenarekin. Ez dago barita magikorik. Eta norbanakoan horrelako ardura jartzea ere askotxo izan daiteke... Adibidez, diru-sarrerak haunditu daitezke politika fiskalak aldatzen; pentsatu dezagun zein politika fiskal behar dugun. Hori bada aberastasuna berrantolatze modu bat, eta berdintasuna sustatzekoa. Hor gauza asko daude, eta ezin dira ardurak maila berean jarri. Gizarteak ez da erakundeetatik bakarrik egiten, eta gure egunerokoan hartzen ditugun erabakiek, nola harremantzen garen, eragina dute, baina baliabideak behar ditugu, eta horiek nola sortzen diren, ardura haundia dago legetan. Ikusi dira nekropolitikak deitu direnak ere, uzten dutenak jendea hiltzen edo gaizki bizitzen. Ardurak erlatibizatu daitezke. Europa mailan asko ari da borrokatzen zeini jarri zergak, nola lortu diru-sarrera gehiago. Badaude mekanismoak eta proposamen desberdinak: mugimendu finantzarioei zergak igo, adibidez. Askotan gastuei erreparatzen diegu eta diru-sarrerak ahazten ditugu; ahazten dugu hor atzean erabakiak daudela eta legeak ahalbidetzen dutela diru-sarrera batzuk edo beste batzuk edukitzea. Gero eta politika fiskal progresiboagoa izan, orduan eta birbanaketa haundiagoa egongo da. Bada horrelako erabakiak hartzeko momentua, zerga berriak asmatzeko. Zergen bidez sustatzen dira erabaki batzuk; adibidez, gehien kutsatzen duenari zergak jarri gero, mugak jartzen dizkiozu. Zergen bitartez ere gizarte eraldatzen da. **K**

Goizuetako Iriartenea eraikina «txukuntzeko», auzolanerako deia

Iriartenea eraikineko barruko lan haundienak amaitu dituzte, eta hemendik aurrerako «txukunketak» auzolan bidez egingen dituzte.

GOIZUETA UDALA

Goizuetako Iriartenea eraikineko barruko lan haundienak amaitu dira, eta hemenedik aurrera, «egoerak hala baimentzen badu», auzolanean bukatu beharko dutela jakinarazi du Goizuetako Udalak, «txukundu eta margotu egin behar da oraindik».

1555eko eraikin hau, Tifanito edo Zentroa bezala ezagutzen dute askok, 1970etik aurrera beheko solairuan dantza egiten zelako. 1995etik aurrera, berriz, gaztetxe bezala egin da ezagun, izan ere, beheko solairua taberna eta lehen solairua «Gazte Asanbladaren elkargunea izan baita urte luzez». Goizuetako Udalaren arabera, hemendik aurrera, herriko hainbat erabilek erabilera emateko moduan izanen da eraikina. Lau hormak eta teilatua berritu zuten duela lau urte, eta orain eraikina barrutik egokitze-



Txukunduta daude Iriarteneako lan haundienak. Argazkia: Goizuetako Udala.

ko lanak egin zaizkio.

Udalak jakinarazi du, azken lan hauek 157.697,55 (BEZ barne) euroko kostua izan dutela, eta Nafar Gobernuak eta Feader-ek (Fondo Europeo de Desarrollo Rural. Europa inverte en zonas rurales) finantziatu dute, 50.000 euroko diru-laguntzarekin.

Lan hau aprobetxatuz, lehen pilotarien aldagela zen gela, «orain komun publikoa bihurtu dugu, aspalditik baitzetorren eskaera hau, herritarren aldetik».

Hemendik aurrera, auzolana

Beraz, hemendik aurrera, «azken lanak egitea faltako da». Argiteriaz, Goizuetako Udala arduratuko da, eta Covid-19ak sortutako egoera hau bukatzen deanean, auzolana egingo da, hau da «margotu eta txukundu». Azkenik, eraikin honen erabilera publiko eta herritarrekin jarraitu ahal izateko modukoa izanen dela azpimarratu du Goizuetako Udalak. **K**

Klaseak emateko boluntario bila, Amher

Euskera eta gaztelaniako klaseak emateko boluntario bila dabil Amher. Interesa izanez gero, deitu 677 710 928ra.

HERNANI AMHER

Euskera eta gaztelaniako klaseak emateko boluntario bila dabil Amher. Izan ere, Amherren jardueretako bat, gaztelania eta euskerako klaseak dira, eta Koronabirusak eragindako egoera honen aurretik lokalean bertan egiten zituzten klaseak. «Batzuetan goizez, beste batzuetan arratsaldez, neguan, udan...» Baina konfinamendu egoera honek, «egunerokotasun berrira egokitzea ekarri gaitu».

Egoera honetan, hasieran, Whatsapp bidez hasi ziren klaseak ematen, «baina gero proposatu zen elkarrizketa bidez egitea, eta beste batzuk, borondatez aurkeztu dira ikaskuntzan laguntzeko».

«Gaztelania zein euskera menperatuz gero, eta klaseak emateko interesa baduzu deitu 667 710 928 zenbakira»

25 bat pertsona daude klase hauetan parte hartzen, bikoteetan, eta badira lagun gehiago «klaseak jasotzeko gogoia dutenak, eta hizkuntza ikasi eta hobetu nahi dutenak».

Denbora dutenei, laguntza eske

Amherrek, denbora duten haiei, laguntza eskatu nahi die, «gaztelania edo euskera menderatzen dutenen laguntza behar dugu». Horretarako bolondresak behar dituzte, klase gehiago sortzeko.

Oraingoan, telefono deien bidez egin dute, «bi pertsonak wifi-a badute, sare sozialen bidez; bestela, telefono deien bidez».

Eskaerak koordinatzen dituen taldeak egingo ditu parekatzeak, eta behin pertsona bat egokitzean, «ados jarri zein egunetan eta zein ordutegietan datorrizuen ondo klaseak ematea».

Animatuz gero, deitu

Gaztelania eta euskerako klaseak emateko gogoia izanez gero, eta boluntario gisa apuntatu nahi baduzu, deitu edo idatzi whatsapp bat 667 710 928 zenbakira.

Beste modu batera ere egin daiteke, idatzi Facebooken mezu pribatu bat, Amher Sos Arrazakeriari. **K**

Uztailaren 8ra arte dago aukera, AEK-ko aurrematrikulaziorako

Datorren ikasturteko aurrematrikulazioa egiteko aukera dago, bai Hernaniko zein Astigarragako AEK euskategietan, eta uztailaren 8ra arte iraungo du izen emateak.

ASTIGARRAGA-HERNANI AURREMATRIKULAZIOA

Datorren ikasturteari begira, aurrematrikulazioa egiteko aukera dago Hernani eta Astigarragako AEK Euskategietan.

Bi euskalgegiek, eskaintza berezi bat luzatu dute, izan ere, %5eko deskontua egingo dute, «ikastaroan aurrematrikula



www.aek.eus webgunean eman daiteke izena

egiteagatik eta ordainketa epe malguagoak izango dira».

Uztailaren 8ra arte, izena emateko aukera

Aurrematrikula egiteko aukerak uztailaren 8ra arte iraungo du eta www.aek.eus webgune bidez egin daiteke, edo AEKren edo-

zein euskaltegira bertaratuz.

Hernaniko AEK-k gaineratu du, aurrematrikula online egiteko aukeraz gain, eta konfinamendutik ateratzeko prozesuaren bilakaeraren arabera, «laister jakinaraziko dugu aurrematrikulak euskaltegian bertan egiteko epealdia». **K**

ATE IREKI telematikoa

Maiatzak 20 asteazkena 17:00etan eta 18:00etan

03 GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Animazio Soziokulturala eta Turistikoa
- Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

02 ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Mekanizazioa
- Instalazio Elektrikoak eta Automatikoak (eskaintza partziala modalitatean)

01³ OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

- Elektrizitatea eta Elektronika
- Elementu Metalikoen Fabrikazioa

HERNANI LANBIDE HEZIKETA
GIZARTE BERRIKUNTZAKO LHII
CIFP INNOVACIÓN SOCIAL

Prestakuntza lanbidea torhiruna

☎ 943 55 19 58 www.hernanilanh.eus

✉ idazkaritza@hernanilanh.eus

📍 Karmelo Labaka 7, 20120 Hernani

Tamaina haundiko tresnen bilketa, martxan



Martxan da, tamaina haundiko tresnen bilketa. Argazkia: Astigarragako Udala.

Martxoan eten zen konfinamendua zela eta, tamaina haundiko tresnen bilketa, baina berriro ere martxan da, ohiko egun eta ordutegi berdinekin.

ASTIGARRAGA UDALA

Konfinamendu egoera dela eta, martxoan eten zen tamaina haundiko etxe tresnen bilketa,

baina 1.fasean sartuak gaudenez, asteartean berriro martxan jarri zen zerbitzu hau.

Ohiko eguna eta ordutegia mantenduko dira, beraz, hementik aurrera, astearte goizetan jasoko dira ohi moduan, tamaina haundiko etxeko tresnak.

Utzi datiezkkeen, objektu eta tresnak

Honako objektu eta tresnak dira utzi daitezkeenak; altzariak; besaulkiak, sofak, aulkiak, ara-

sak... Koltxoiak eta somierrak; Lerro zuriko etxetresna elektrikoak: garbigailuak, hozkailuak; telebista; aparatu elektroniko txikiak, hala nola, ordenagailuak, irabiagailuak, plantxak...

Utzi ezin daitezkeen objektu eta tresnak

Utzi ezin daitezkeen tresna eta objektuak berriz honako hauek dira: eraikuntza-hondakinak eta obra-hondakinak; paletak; kristalak; komun-ontziak. **K**



JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Krisi garaiak, eraldaketa sozial eta ekonomikoaren garaiak

2008ko krisialdia langile eta herritarrek gogor ordaindu genuen. Prekaritatea, pobrezia, pribatizazioak, murrizketa sozialak, errepresio poliziala, kapitalismoaren zapalkuntza basati-ki areagotu dira urte hauetan.

Oraingo honetan ere antzeko bidetik jarraitzea posiblea da, jakina, baina, borroka eginez, Euskal Herrian behin eta berriz gauzak aldatzea posiblea dela erakutsi dugu. Horregatik itxaropena sustatzeko arrazoiak badaude eta zentzu horretan aurretik zetozen borroka indartu eta eztabaida publikoaren erdigunean jarri dira.

Birusaren aurretik Euskal Herrian garatzen ari ziren hainbat etahainbat borroka, pensionistenak eta mugimendu feministarenak esaterako, edo

Urtarrilaren 30eko greba orokorrean defendatu ziren aldarrikapenak gure herriak beharko duen berreraikuntzaren norabidea finkatzen dute gaur egun ere. Aberastasunaren banaketa, gizarte duin batek pertsonen eskaini behar dien zerbitzuen publikoen indartzea, oinarritzko errenta, langileria eskubideak... Zutabe horiekin atera beharko gara krisialdi honetatik edo ez gara aterako.

ZAINTZA ereduaren inguruko borroka fronteak nagusitasuna hartu du. Adinekoen egoitzetako egoera, osasungintza publikoak jasandako murrizketaren ondorioak, etxeko langileen beharrak eta eskubideak, pribatizazioen kalteak... Den dena auzian jarri da eta herritar askorentzat argi geratu da oraingo ereduaren erabat

aldatu behar dugula. Pertsonak erdigunean jarri, kapitalismoaren logikatik aldentu eta eredu publikoak, kooperatiboak eta berriak sustatzearen premia nabarmen geratu da.

Bertako merkataritzaren defentsa, tokian tokiko ekoizleen garrantzia, kontsumo ereduak, baliabide naturalen erabilera, hirigintza mugikortasun ereduak... Kezka hauek zorionez garrantzia irabazi dute.

Globalizazio kapitalistaren eta kontsumismoaren ondorio ekologiko, sozial eta ekonomiko katastrofikoak aurpegira bota dizkigute. Euskal Herria berria irekitzeko bideak zabaldu dira. Euskal sozialismoa edo barbaria !!!

Mikel Arrieta Iraola

Edari energetikoak eta 'Gaztetxef', gaur

Astebururako hainbat ekintza antolatu dira Astigarraga eta Hernaniko Gazteleketan, haien artean, lehiaketak eta pelikulak.

ASTIGARRAGA HERNANI GAZTELEKUA

Hainbat ekintza antolatu dira astebururako, eta biharko bereziki, izan ere, LGTB fobiaren aurkako Nazioarteko Eguna baita bihar.

Hala ere, gaur, Hernaniko Gaztelekuak, edari energetikoen garia berriz azalertzeko asmoa du, eta «gazteei kontsumo ohiturei buruz galdetuko diegu». Astigarragan, gaurko *Gaztetxef* antolatu dute, «zuek bidali eta guk egin». Eta bihar berriz, *El mayordomo* pelikula izango da ikusgai, *Gaztezinema* eguna antolatu baitute.

Bihar, LGTB fobiaren aurkako eguna

Bihar da LGTB fobiaren aurkako eguna, hori dela eta, Hernaniko Gaztelekuak «jarrera kritikoa sustatzeko» hainbat ekintza eta elkarrizketa egin ditu aste honetan. Ostiralean, arratsaldeko 17:30etan, *Hiruki Larroxa* kolektiboko kide den Egoitz Arbiol Albeniz hernaniarrarekin elkarrizketa ikusteko aukera izan zuten askok, horrez gain, *Pozoi larroxa* dokumentala ikusi zuten, eta horri buruz hausnartu.

Galdetegia eta zozketa

Astea amaitzeko, gaur denez LGTB fobiaren aurkako Nazioarteko Eguna, Egoitz Arbiol Albeniz berak prestatutako galdetegiarekin osatu den lehiaketa egongo da. Honakoa, Instagram sotry bidez zabalduko dute, eta Hernaniko Gaztelekuak jakinarazi du «galdera sorta hori ongi erantzuten dutenen artean, Kattalin Miner idazle hernaniarraren *Moio. Gordetzea ezinezkoa zen* liburua- ren bi ale zozketatuko dira». **K**

Xaguxarren 'betiko' udalekurik ez da egongo

ASTIGARRAGA XAGUXAR

Astigarragako Xaguxarrek jakinarazi du, herriko familien beharrak kontuan izanda eta egoerak bermatzen duena aztertuz, «betiko udalekuak ez dira egingo», hala ere, gaineratu dute, «zer baita» antolatuko dutela, baina oraindik ezin dutela jakin, «zer eta nola». Gauzak zehaztean, informazioa zabalduko duela aipatu du Xaguxar aisialdi taldeak. Udalekuek gain, Gazte kanpaldia (Garde) bertan behera uztea erabaki dute.

'Gure artean ibiliak' azken saioa, bihar

HERNANI CD HERNANI

Bihar izango da, CD Hernanik sortutako 'Gure artean ibiliak' en azken saioa, arratsaldeko 19:00etan. Antolatzaileek jakinarazi dute, ez dela gonbidaturik egongo, saio hau sortu dutenak osatutako programa izango baita biharkoa, «gure helburua da programa guztietako momentu onenak birgogoratzea eta ondo pasatzea». Hala ere, ez dute baztertu, aurrerago «behar bada» itzuliko direla elkarrizketa sorta batekin.

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu? Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.

943 33 10 20 www.funerariaorbegozo.com

* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin

* Beilatokiak

* Errausketak


* Lekualdatzeak

* Eskelak, koroak...



Zentrala Latsunbe 7, Hernani

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA



«Zaintzen Kultura Loratze bidean»

ERAGILEA/ELKARTEA ITXIALDI GARAIRAKO SORTUTAKO ZAINZA SAREA

Nondik, noiz eta zertarako sortu da Zaintza Sare hau?

Urumea HerriGuneak abiatu zen sarea, Covid-19 alarma egoera aktibatuta eta hurrengo astean.

Gure helburua, zaurgarri izan daitezkeen herritarrei, sare propioak asetzen ez dizkieten beharrik asetzera da.

Ez da bat-batean sortzen den ideia bat. Azken urteotan kolektibo ezberdinetatik ematen ari garen zaintzen inguruko hausnarketak motibazio izanik, egungo errealitatera eta ditugun baliabideetara egokitzen den zerbait abiatu nahi zen, nolabait elkarren ardura hartuz eta komunitatea indartzuz, zaintzaren kultura ureztatzen jarraitzeko. Landatzen ari diren hazi horiek pixkanaka esperientzia 'organikoagoak' loratuko dituztela espero dugu.

Nortzuk osatzen duzue Sare hau?

Urumea HerriGuneako kideez gain, 100dik gora herritarrek aurkeztu dute euren burua zaintza sarearen parte izateko.

Zein da Zaintza Sarean egiten duzuen lana?

Eskariaren arabera, 25eko zaintza talde iraunkorrak sortzen ditugu eta hauek dira egunerokoan zaintza behar dutenekin kontaktu zuzena dutenak. Gainontzeok, itxaron zerrendan geratzen dira eta bitartean informazioaren hedapenarekin laguntzen digute (kartelak jartzeko, sareetan elkarbanatzen...). Gainera, beren gertuko komunitatean (familia, bizilagunak...) adi ibiltzeko eta zaintza sarekoak sustatzeko gonbita egin diegu, tokian tokiko egoerak ezaugarritzea eta horietan konfiantza lantzea, askotan gertutik elkar-

-zaintza sortzea errazagoa baita.

Nork, non eta zertarako jo dezake zuegana?

Koronabirusagatik kutsatzeko arrisku egoeran dauden pertsonen edo egoera zaurgarrietan daudenek, beren kabuz edo sare propioen bidez bitzita eusteko lanak egin ezin dituztenean. Adibidez, erostetako egiteko, haurrak zaintzeko, animaliak paseatzeko, zaborra jaisteko... laguntza behar dutenek. Bakarrik bizi den norbaitek 'bizilagun telefonikoa' behar badu telefonoaren bestaldean norbaitek berarekin gai pertsonaletaz hitz egiteko eta barrenak askatzeko, guri deitzeko aukera dauka. Hau ere, plazaratutako telefonoetan eskatu daiteke, ondoren momentuan momentuko pertsona boluntarioarekin kontaktuan jarritz. Udaletik etxetara deiak egiten ari dira, bai, baina ulertzen dugu edozein ez dela gauza pertsonaletaz instituzioarekin edota langile teknikariekin mintzatzeko erosoa.

Zein lotura egiten duzue zuen lana eta Tratu Onen Hernanirenean?

Zaintza sare bat egotea bera dagoeneko Tratu On bat da. Elkarren ezagutzan, konfiantzan, konplizitatean eta elkarren sostenguan oinarritzen den komunitatea sortu nahi badugu, beharrezkoak ditugu zaintzen sareak. Sare hauek, adin ezberdinetakoaren artean, jatorri ezberdinetakoaren artean etab. izan behar dira. Gure ideia da, dagoeneko toki askotan gertatzen ari den bezala, zaintzen kulturaz Hernani zipriztindu eta zaintzarako sare naturalagoak sortzen joatea.

Bitarte horretan, egoera espezifikoki honi begira, guri deitzen digun edozeini egiten dizkiogun bi galderak tratatu onen

oinarri dira guztiz: 'Zer moduz zaude? Zer behar duzu?'

Jasotakoa bolondresei transmititu eta hauen behar eta ahalmenetara egokitzen dugu, ahalik eta osoen asetzeko. Eskara bat ez dugu 'agindu' bezala bizitzeko eta eskaria egiten dutenei, beharren aurreikuspenekin eta segurtasun neurriekin zaintzaleak zaintzeko eskatzen diegu.

Herrian daukaguna baloratze aldera, zeintzuk dira egun dauden praktika onak?

Lehen aipatu dugun bezala, hau ez da bat-batean jaiotzen den ekimen bat. Zaintzaren inguruko hausnarketa bat ematen ari da herrian, kolektibo ezberdinetatik (Mugimendu feministan, Iturrolan, Amherren, Langileen Babes sarean...). Gainera, ideiatik haratago, hitzari ekintza jartzeko prest dagoen jendea dago. Ba al dago bizitzak erdigunean jartzea baino Tratu Onagoririk?

Eta zuen ustez, eta Tratu Onei dagokionez, zer indartu behar da Hernani mailan?

Jakitun bakoitzak bere borroka eta lehenetsunak dauzkala, borroka komunitatean sakontzea falta zaigu, behar eta zapalketa guztiak mahai gainean jarri eta elkarrekin erantzunez. Komunitate begirada indartzea ta zaintza sare organiko sendoak eraikitzea.

Zer nolako Zaintza eredu irudikatzen duzue denontzako ona izango den Tratu Onen Herrian?

Behar indibidual eta kolektiboen arteko oreka bat duena, txikitik handira antolatzen dena. Bizitzak berak markatzen dituen erritmoetan oinarritzen dena eta ez instituzio, kapital, burokrazia erritmoetan. Gehiegitan burokraziak bitzitzaren erritmo eta beharren atzetik doa eta kapitalari eskua emanda, eta kapitalak markatzen duen erritmoak ez dio bizitzari arnasten eta bere erritmoa jartzeko uzten. **K**

EROTIKAN PLAX!

HARREMANEN INSPEKZIO TEKNIKOA



Nork osatzen du nire cromlecha?

Giro afektiboaren zaintzak

Pandemiak aitzakiarik gabe utzi gaitu.

Eta galderetan galderarik potoloena... norekin konfinatuko ginatete etorkizunean?

Txinan, izurritearen ondorioz, **bikoteen arteko banaketak biderkatu dira**. *Nola gaude gure bikotekidearekin, halakorik dugunok? Nola partekatuta dira etxekolanak elkarrekin bizi diren horien artean? Zer deskubritu dugu elkarretaz? Zer gustatu zaigu? Eta zerk ikaratu?*

Eta galderetan galderarik potoloena... norekin konfinatuko ginatete etorkizunean?

Musukoen inespresibidadeari aurre egiteko, elkar atsegin dugunon arteko giro afektiboa zaintzeko garaia dugu. Sentimenduak, emozioak, laudorioak, animoak... partekatzeke unea. Harremanak indartzeko ausardia baliatu dezakegu, elkarrengana eta esanguratsua denari lekua egin diezaiozun.

Atal honetan eta Plax! Sexu eta bikote aholkularitza zerbitzuen bitartez, **harremanen inspektzio tekniko** egiteko hainbat galdera eta baliabide luzatuko dizkizuegu. Erein beharrezkoak ureztatuta eta iraganari dagokiona pakean betirako uzteko. Kontatu gurekin aurrera jarraitzeko!

PLAX! Hernaniko sexu eta bikote aholkularitza doakoa eta konfidentziala da. Osasun zerbitzuen osagarria. Covid-19a dela eta, zerbitzua telematikoki ematen ari gara momentu honetan. Hitzordua egiteko: **656544606** (deitu edo bidali whatsapp bat), www.hernani.eus/sexu eta [facebook.com/plaxhernani](https://www.facebook.com/plaxhernani).

Adi! Konfinamenduan indarkeria matxistak gora egin dezake. Erasorik jasaten baduzu, DEITU eta lagunduko dizugu.

943 557 854 (8:00-14:00 Hernaniko Zerbitzu Sozialak)

900 840 111 (24 ordu, ez da deia erregistratua geratzen)

*Merazi dugu indarkeriarik gabe bizitzea gidak deskargatzeko aukera hainbat hizkuntzatan hemen: <https://www.hernani.eus/eu/indarkeria-matxista#gida>

«Hernaniko Kaxkoan, fase honetan, taberna bat kenduta beste guztiak itxita gaude»

Joxe Mari tabernak bederatzi egun barru irekiko du eta dauden baldintzekin eskualdeko taberna gehienak itxita jarraitzen dute. «Oraindik logistikoki ez gaude prestatuta irekitzeko, eta ekonomikoki dauden baldintzetan ere ez».

URUMEA TABERNARIAK

Astelehenetik aurrera, kaleetako bizia neurri haundi batean itzuli zen, izan ere, herrietako merkataritza lokal txikiak eta hainbat ostalaritza establezimenduk euren atak bi hilabeteren ostean zabaltzeko aukera izan zuten. Hala ere, segurtasun baldintza ugari betetzea beharrezkoa izan da euren zerbitzuak eskaini ahal izateko.

Tabernariak ere baimena jaso zuten euren establezimenduen atak zabaltzeko. Hori bai, beti ere lehenengo faseak ezartzen dituen baldintza edo neurriak betez. Horrek ekarri du tabernari gehienek tabernak ez irekitzea. Horrela, Hernanin, Astigarragan, Goizuetan eta Erefiotzun gutxi batzuk ireki dituzte. %15era ez da iristen kaleetan terrazak jarri dituzten tabernak. «Kaxkoan taberna bakarrak ireki du oraingoz, Txokok, beste guztiak itxita gaude» esan du Hernaniko Joxe Mari tabernako arduradunak.

Nahiz eta terraza izan eta le-

kua, mahaiak kalean jartzeko, Joxe Mari taberna da oraindik atak zabaltzeko ez dituen establezimendu horietako bat eta euren nagusiek arrazoiak ematen dituzte. «Oraindik ere ez dauka gu ziurtasunik baldintzak betetzeko gai izango garen hasieratik eta nahiago dugu itxaron. Datorren astean ere itxita jarraituko dugu».

«Baldintzek baldintzatzen gaituzte»

Nahiz eta lehenengo fasea heldu den, bete beharreko segurtasun neurriak oso modu nabarmenean mugatuko lukete hainbat establezimenduren aktibitatea, izan ere, terrazaren edukieraren erdia erabili ahal izatea, segurtasun tartea mantendu behar izatea eta bestelako aspektuek oso muga haundia izan daitezke. Tabernari askoren kasuan, ekonomia arloko kontuak egitea izan da irekiera atzeratzearen arrazoia. «Baldintzek baldintzatzen gaituzte itxita mantentzearen erabakia hartzera». Joxe Mari tabernako nagusiak ez



Joxe Mari tabernako terraza atzo, jasota.

dira salbuespena.

Bigarren fasean irekiko dute sei mahairekin

«Arazo eta aldaketa asko da-

karzki denak. Pintxoentzako ere bitrinak jarri beharko ditugu derrigorrez. Detaile asko airean daude» diote Joxe Marikoek.

Udalak terrazen haundiagotzea ahalbideratu dezake. «Sei mahai ezartzeko aukera eskainiko digu, orain duguna baino bat gehiago. Hori bai, mahai artean bi metroko distantzia egon behar da eta mahai bakoitzeko bi pertsona gehienez».

Joxe Mari tabernak irekitzen duenean bigarren fasean sartuta egongo da printzipioz Gipuzkoa eta fase horretan barrua ireki dezakete tabernak, nahiz eta edukiera mugatua izan. «Terrazetan hasieran %30 zen eta gero %50era zabaltzeko zuten, fase horretan printzipioz %30ekoa

izango da».

Maiatzaren 25etik aurrera mahai-zerbitzua duten lokalen barruan kontsumitu ahal izango da, edukieraren herena mugatuta eta beti eserita. Beraz, ezin izango da tabernetako barretan egon, eta ez dira martxan egongo gaueko tabernak eta diskotekak.

Taberna prestatu edo egokitu beharra dago baldintza berrietara eta horretan ari dira Joxe Marin. «Komunen gaia nola doan oso ongi ere ez dakit».

Zalantza asko sortu dira eta oztopo guztiak gaintitza zaila da. «Auzoetan taberna gehiagok ireki dituzte terrazak. Agian errazagoa da egokitzea, baina Kaxkoan zailagoa da». K

1. fasean terrazak bakarrik, %50eko edukieran eta distantziak mantenduz

Mahai bakoitzean gehienez 10 pertsona egon daitezke, beti ere, mahai horiek horretarako aukera ematen badute, eta ez dago ordutegirik.

URUMEA TABERNARIAK

Hala nahi duten ostalaritza-establezimenduetako terrazak ireki daitezke, gehienez ere %50eko edukierarekin. Lokalaren barruan ezin da kontsumitu; 1. fase honetan terrazetan bakarrik kontsumitu daitezke, beti ere aipatutako edukiera mantenduz eta mahaien arteko segurtasun-tartearekin. Horietako bakoitzean gehienez 10 pertsona egon daitezke, beti ere mahai horiek horretarako aukera ematen badute. Hau da, lau mahai batean ezingo dira 10 lagun eseri. Lokal barruko kontsumoa ezin da hurrengo fasera arte onartu,

hau da, 2. fasera arte. Teorian, fase hori bederatzi egun barru sartuko litzateke indarrean.

Teorian edozein ordutan joan daitezke terrazetara. Edozein pertsona, adina edozein dela ere, establezimendu horietara joan daitezke.

Terrazetan ondorengo segurtasun-neurriak aplikatuko dira: mahaien arteko urruntzeaz gain, kontaktua saihesteko ahalgina egingo da. Kartak arbetan erakutsiko dira; adibidez. Txarteldegia egongo dira langileek beren gauzak utzi eta bata bestea ez ukitzeko, eta, besteak beste, erabiltzeko eta botatzeko mahai-zapiak erabiltzea gomen-

datzen da. Halaber, egunean bitan desinfektatuko dira establezimenduak.

Nolanahi ere, gutxienez bi metroko distantzia mantendu beharko da mahaien edo mahaien multzoen artean. Bezera baten eta besteren artean, mahaiak desinfektatuko dira eta baita erabilera partekatuko edo harremanetarako azalera guztiak ere. Erabilera komuneko kartak erabiltzea saihestuko da eta txartelarekin ordaintzea sustatuko da. Gainera, mahaietatik autozerbitzuko produktuak kenduko dira, hala nola, olio-ontziak, ozpinak, eskuzapiak edo zotzak emateko gailuak.

TALLERES JUANTXO
Juan Ignacio Rodríguez

- ▼ Diagnosi unibertsala
- ▼ Neumatikoetan aukera zabala
- ▼ Aire egokituaren karga eta konponketa

- ▼ Suspentsioak, Balaztak
- ▼ Olio aldaketak. Mekanika orokorra

ESKAINZA NEGU ETA UDAKO NEUMATIKOETAN

Astelehenetik ostiralera:
09:00 - 13:00 / 15:00 - 19:00
Larunbatetan: 10:00 - 13:00

Andre kalea, 60 (Atzietas) Hernani Telf: 943 25 66 08 tallerjuantxo@gmail.com

IREKITA DAUDEN KOMERTZIOAK



AMETSA ILEAPAINDEGIA

ametsa
ileapaindegia

Antziola
13 behea,
Hernani

943 33 68 49 / 603 413 083

ORDUTEGIA

Astelehenetik-ostiralera: 9:00-19:00. Larunbatak: 8:00-14:00

ESKAITZAK

Familiako guztiontzako, koloreak, kolore beganoak, metxak, (balayage, kaliforniana...), keratina (85€). Maskarilla beharrezkoa.

KRISTINA-ANABEL ILEAPAINDEGIA-ESTETIKA

Kristina
Anabel

Elkano 18,
Hernani
943 556
751 /

☎ 664 336 982

Zure irudia aldatzen laguntzen zaitugu. Ile mozketa pertsonalizatuak. Depilazioak, manikurak, pedikurak, makillajeak, aurpegiko eta gorputzeko tratamenduak, erradiofrequentzia, vacuum, lipolaser, solariuma. Hartu hitzordua.

BIOK ILEAPAINDEGIA

ILEAPAINDEGIA

BIOK

Jone eta Ana

Elkano kalea, 18
943 333 032 / ☎ 688 660 415

Norbanakoari egokitutako lanak, azkartasuna eta erabateko garbitasuna.

Mozketa eta moldeatu lanez gain,

aukeran dituzu:

- 10 minutuko kolorea
- Betiko kolorea: teknika desberdinak
- Kolore organikoa
- Kolore bainua

ORDUTEGIA:

* Astelehenetik asteazkenara
08:30-12:30 eta 15:00-19:00.

* Ostegun eta ostiraletan
08:30-18:00.

* Larunbatetan 08:30-13:00.

ADATS ILEAPAINDEGIA



Nafar kalea 14, Hernani

Egoera berri hau dela eta, lan egiteko genuen modua erabat aldatu beharko dugu.

Hemendik aurrera, ileapaindegira etortzeko txandak, hitzordu bidez antolatuko ditugu.

Horretarako, bi telefono ditugu: WhatsApp ☎: 688 849 059

Ileapaindegiko telefono fijoak 943 33 24 41

KIMU ILEAPAINDEGI MIXTOA

Izpizua kalea 1 Gogoratu
Hernani joan aurretik
943 55 15 44 hitzordua
hartzeara.

SARAH ILEAPAINDEGIA

Larramendi 1 **ORDUTEGIA**
behea, Hernani. 9:30-13:00
Telefona 17:00-20:00
667 557 630

DAGO MOTOR



Akarregi 2B, Hernani
943 33 06 65

ORDUTEGIA


8:30 - 19:00

Ozono makina bati esker zure kotxea guztiz desinfektatuta jasoko duzu.

PELOTADENDA



ASTORE, ADIDAS, NB, ALTUS
SKECHERS, ASICS,
SONTRESS, HI-TEC.



ORDUTEGIA

9:30-13
16:30-19:30

24 orduz PELOTADENDA.COM

Karobieta 1 (Atsegindegi) Hernani
943 555 852 / 656 316 031

IKUSI-MAKUSI JOSTAILUAK OPARI DENDA



Kale nagusia 7

Telefona 843 630 469

☎ 634 607 099

📷 📱 Ikusi Makusi Hernani

ORDUTEGIA

* Goizez, 10.00-13.00
* Arratsaldez, 17.00-19.30
* Larunbata, 10.00-13.30

OREKAN BORDA TXAKUR EGOITZA



Hebidea: Goiburu auzoa, Urnieta
628947260 Aitor

ORDUTEGIA

9:00-13:00 / 17:00-19:00 Txakur-
rrak jaso eta itzultze zerbitzua.
Horretarako egokitutako autoaz.

URBIETA KOPIAK



688 635 561
Urbietakopiak@gmail.com

ORDUTEGIA (alarma egoeran)

9:00-13:00 / 16:00-19:00
LARUNBATETAN ITXITA

EROSKI ASTIGARRAGA



943 556519.

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera 9:00-20:00. Larunbatean 9:00- 14:00.

Arraindegian whatsapp bidez enkarguak egin ahalko zaizkio Maikari larunbat honetatik aurrera.
☎ 659 361 408

TTILIN-TTOLON



Txirrita 10, Hernani
943 55 56 94

ORDUTEGIA

08:45 - 13:30 / 17:00 -19:00

Jakinarazten dizuegu kontsultak martxan daudela osasun neurri guztiak hartuta.

Animo denei eta bereziki ondoezik zaudetenei!

Eskerrik asko egoera berezi honetan arduraz jokatzearagatik.

AMANE



Urbietakalea 7

943389420 / 688773754

ORDUTEGIA:

Astelehetik ostiralera 9:00-13:30 /
16:30-19:30.

Launbatetan: 9:00-13:30

ESKAITZAK

Laister martxan jarriko ditugu berri-
ro ere honako kontsultak:

- Naturopata (intolerantzia test-a
eta iridiologia)

- Nutrizionista (Lab. Nutergia)

- Biomagnetista (imanak eta kara-
melo bidezko exfoliazioa)

- Depilazio laserra (diodo)

Hauetaz gain, honako zerbitzu
hauek ere eskaintzen ditugu:

- Gluten eta esneki gabeko ogia
(asteazkenetan).

- Sasoiko barazki ekologikoak
(Balantxa Baseritik ekarriak).

COVID-19 dela eta, beharrezkoak
diren kasuetan erostetak etxera
eramaten ditugu. Telefonoz edo
WhatsApp bidez, zuen eskaera
egin dezakezue.

Animo eta denen artean lortuko
dugu! Besarkada bat.

JAIONE KONGELATUAK



Kale
nagusia 40,
Hernani

943 55 07 87

☎ 635 701 436

ORDUTEGIA

09:00-13:30

OREKAN



Agustin-
darren
plaza 1,
Hernani

Telefona: 943550846

☎ 665 147 267

ORDUTEGIA

9:30-13:30

PINEDA




Andreka kalea, 32
Hernani
943 55 16 43

ORDUTEGIA

8:00 - 13:30

LOPEZ PENTSUAK



Elkano kalea
13 behea
Hernani

TELEFONOA:
943 55 02 30

ORDUTEGIA

8:30-13:30

ESKAITZA

Ongarriak, haziak, fitosanitarioak,
pentsuak, ardoak, patatak, leka-
leak, fruitu lehorrak, kontserbak...

EZKERRO



Antziola, 5

943 57 48 31 / 688 885 733

ORDUTEGIA

07:30-13:00/ 17:00-19:00

Irekita jarraitzen dugu, enkarguak
jaso eta prestatzen ditugu.

ALAIA ODONTOLOGIA ZENTROA


Antziola 11 behe, Hernani
943 33 53 73

Gure Zentro Odontologikoa pres-tatu dugu ahalik eta segurtasun handiena eskaintzeko. Lasai etorri ahal izango zara guregana.

* Eskatu zure hitzordua telefonoz.

* Laguntzailerik gabe joan behar

da, adingabea edo mendekotasuna duen pertsonak salbu.

* Hobe eskumuturrekorik, lepokorik edo belarritarokik gabe joatea.

* Puntuala izan eta distantzia sozialari mantendu beti.

* Gomendagarria izango da txartelarekin ordaintzea.

* Klinikari sartzean tenperatura hartuko dizugu.

* Gel-dosi hidroalkoholiko bat

eskainiko dizugu.

* Txano bat, galtzerdiak, maskarak eta eskularruak janzteko eskatuko dizugu.

* Itxarongelan jarriko zaitugu.

Guztion konpromisoarekin, emaitza bikaina lortuko dugu.

Orain inoiz baino gehiago, zure ondoan gaude.

IRRIBARRE EGITEN IKUSI NAHI ZAITUGU.

IRAOLA HORTZ KLINIKA


Helbidea:
Andrekale Kalea 50 - 1D

Telefonoa:
943 55 44 55

ORDUTEGIA

10:00-14:00

Ekainaren 1etik aurrera 10:00-18:00.

ASTIGARRAGA HORTZ KLINIKA

Pelotari kalea 17,
Astigarraga

Telefonoa
943 33 00 89
688 68 68 17

ORDUTEGIA

Asteleheneretik asteazkenera 14:30-20:30 / ostegun-ostirala 8:30-14:30

ODONTOLOGIA OROKORRA / HAURRENTZAKO PADI ZERBITZUA

IZASKUN APEZETXEA

HORTZ KLINIKA

Elkano 16 1A
Hernani

ORDUTEGIA
9:00-17:00

943 55 20 29 Odontologia orokorra.

ISABEL JANARI DENDA

Tomas Alba 11, Zerbait behar
Astigarraga baduzu:
Arratsaldez isamendioroz@
itxita. gmail.com
943 55 23 67

BIDE ARIN


Txirrita 13,
Hernani
943 33 21 70

ORDUTEGIA
Asteleheneretik ostiralera
16:30-20:30
Larunbatetan
10:00-13:30

Egoera hau dendan al-daketa txiki batzuk egiteko erabili dugu. Deskontuak badauzkagu eta material berria.

ETXERA ERAMATEN DUTENAK

**OTSAIHEN**

ESKAITZA

24 botilako kaxak: 50€

Nahieran egin ditzakezu kaxako nahasketak: Horia, IPA eta beltza

Bidalketak etxera, Gipuzkoa osoan

Eskaerak egiteko: otsaihen@gmail.com 623 229 297

**GURUTZETA SAGARDOTEGIA**

943 55 22 42

ESKAITZA

SAGARDOA ETXERAINO ERAMANGO DIZUGU

HIRU SAGARDO MOTA ESKAINTZEN DIZKIZUGU

Gurutzeta Gorenak (Lepoko beltza). Ezaugarriak: suabea, usain freskoa nabarmentzen zaiona, poteatzeko aproposa.

Gurutzeta Euskal Sagardoa (Lepoko gorria). Ezaugarriak: Bertako sagarra, tradizioz jantzia eta sendoa. Arrain nahiz haragiekin ongi uztartzen dena.


Gurutzeta Euskal Sagardoa Bio

(Lepoko berdea). Ezaugarriak: Sagasti ekologikotik datorrena, Segurako Munjardin baserrietik hain zuzen ere. Fruitu kutsu handia duena eta orekatua, errexil sagarraren eragina. Jaki guztiekin ongi sartzen dena.

6 eta 12ko kaxetan salgai.

Eraz eros dezakezu honoko telefonoa erabiliz: **943 55 22 42**

Gure web orria erabiliz ere bai: www.gurutzeta.com

ALTZUETA SAGARDOTEGIA

HELBIDEA: Osinaga 7, Hernani

TELEFONOA: 943 55 15 02

ESKAITZA

Nahi izanez gero, EUSKAL SAGARDOA ere etxera eramaten dugu.

**LARRE-GAIN SAGARDOTEGIA**

Ereñotzu Auzoa 20120
Hernani
943 55 58 46 / 607 429 102

ESKAITZA

Etxera eramango dizuegu sagardoa. Egin eskaera!

PETRITEGI SAGARDOTEGIA

HELBIDEA:
Petritegi bidea,
8 Astigarraga

TELEFONOA:
687522734

EMAILA: petrietxea@petritegi.com

ORDUTEGIA:
Eskaerak egiteko: 10-13 eta 15-18
Eskura ematea: 13-15 eta 20-22
(Momentuz Astigarraga eta Martutenen soilik)

ESKAITZA

Sagardotegia etxera. Dastatze menua bi lagunentzat: Txorizoa sagardotan, bakailao-tortillarako osagaiak (arrautzak ezik), entsalada berdea, legatza parrilan, etxeko mamia eta sagardo edo sagar zuku botila. Nahi izanez gero **menua zure erara osatzeko aukera:** legatza, Txuleta, txistorra, gazta, irasagarra... Aukera guztiak www.petritegi.eus-en (Asteartetik aurrera sagardotegian jasotzeko aukera).

ITXAS-BURU SAGARDOTEGIA

Osiñaga Auzoa 20120
Hernani

684360903

ESKAITZA

Etxera gerturatzen dugu Sagardo Arrunta eta Euskal Sagardoa J.D.

GOIKO LASTOLA SAGARDOTEGIA

Ereñotzu auzoa, Hernani
620 783 529

ESKAITZA

Etxera ere eramaten dugu sagardoa.

EUSKAL-PIZZA

Larramendi 3, Hernani
943 33 33 73

ESKAITZAK

Pizza ertaina + 3 osagarri + saltsa aukeran + hanburgesa osoa: **16,95 €.**

2 x 1 etxera eramanda ere bai.

Zure komertzioa iragarri nahi baduzu, jarri harremanetan:

> publi@kronika.eus

> 688 660 714

Hernani Institutuko eta Lanbide Heziketako ikasleak ez dira etzi klaseetara bueltatuko

Aste nahasia izan dute bi ikastetxeetako zuzendaritzakoek, azken egunetan mezu aldakorak jaso ondoren. «Oraindik ez dakigu klaseak noiz, ezta sikiera hasiko diren edo ez».

URUMEA HEZKUNTZA

Hernaniko Institutuak eta Hernani Lanbide Heziketak ez dituzte ateak irekiko, etzi astelehenean. Eta maiatzaren 25ean zer gertatuko den oraindik ere argitzeko dago.

Cristina Uriartek, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak, atzo azaldu zuenez, maiatzaren 25era arte atzeratu dute DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako laugarren mailako ikasleen itzulera, «berme eta ziurtasun juridikorik ez» diolako eman Espainiako Gobernuak.

Hezkuntza sailburuak gogorazi nahi izan zuen Espainiako Gobernuarekin adostu zutela maiatzaren 18tik aurrera euskal ikasleen eskola presentzialak berriz hastea, baina data atzeratu egin dela, Jaurlaritzaren araua ez delako astean zehar iritsi, eta «segurtasun juridikorik eza» sor litekeela.

Erabakia ikastetxe bakoitzaren esku, kritikak entzun eta gero

Uriartek azaldu zuenez, ikastetxe bakoitzak erabakiko du eskola presentzialetara itzuliko den ala ez. «Zentro bakoitzaren errealitatea desberdina da azken asteetan egin duten jardueraren arabera. Batzuek hezkuntza-errefortzu haundiagoa behar dute, eta egoera guztiei erantzun behar diegu».

Hezkuntza sailburuak azpimarratu zuenez, ikastetxe bakoitza da bere egoera ondoen ezagutzen duena eta, beraz, berak hartuko du ikasgeletara itzultzearen inguruko azken erabakia, baina Hezkuntzako

Uriarte: «Aurrez aurreko klaseetara itzultzen ez diren ikastetxeek Hezkuntza Ikuskaritzan justifikatu beharko dute erabakia. Egoera guztiei eman behar diegu erantzuna»

ikuskaritza zerbitzuen aurrean justifikatu beharko duela gogorarazi du, «horiek izango baitira azkenean abala emango dutenak edo ez dutenak».

Cristina Uriartek esan zuen bere saila datorren ikasturtea prestatzen ari dela eta hainbat eszenatokitik lanean ari direla. «Zer gerta daitekeen ez dakigulako prestatu behar gara. Kontingentzia plan bat izan behar dugu», gaineratu zuen Hezkuntza arduradunak.

Uriartek maiatzaren 7an, adierazi zuen, Batxilergoko ikasleak eta Lanbide Heziketako laugarren mailako ikasleak, klaseetara maiatzaren 18an itzuliko zirela. Hortik aurrera mezu asko eta desberdinak zabaldu ziren ikaskuntzaren arlo eta sektore desberdinetatik. Sindikatuek ez zuten ongi ikusi erabakia eta egon ziren kritikak ikusita, mezu desberdinak zabalitzen joan dira.

«Lehenengo fasean eskolak irekitzea ez da aipatzen» Denis Itxasoren esanetan

Asteazkenean Denis Itxaso, Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak adierazi zuen: «Lehenengo fasean, eskolez esaten den gauza bakarra da irekitzea, desinfektatzea, garbitzea eta prestatzea dela posible, baina ez eskoletako gelak ireki eta bertan haurrak sartzea».

Hori «azkarregi joatea» zela-eta, printzipioz ez dago lehenengo fasearen aukeren artean. Azaldu duenez, arintze prozesuan baldintza zorrotzagoak jarri nahi badira, ez dago arazorik; bai, ordea, arintze prozesua «gehiegi azeleratu» nahi duten

Denis Itxasok adierazi duenez, «arintze prozesuan baldintza zorrotzagoak jarri nahi badira, ez dago arazorik; bai, ordea, arintze prozesua gehiegi azeleratu nahi duten neurriei buruz hitz egitean»



Hernaniko Institutua atzo ateak itxita.

neurriei buruz hitz egitean. «Ikusiko dugu, bigarren faseara begira, zein diren aukerak». Hala ere, gogorarazi du «oso gutxi» falta dela ikasturtea amaitzeko.

«Eskola kontseiluek erabaki behar dute klaseetara itzuli edo ez»

Kronika astean zehar Hernani Institutuko eta Lanbide Heziketako zuzendaritzekin jarri da harremanetan beraien egoera nolakoa den jakiteko. Aste guttian zehar bilerak egiten aritu dira, baina jakin gabe zeri eutsi. Asier Mendizabal Institutuko zuzendariaren hitzetan «egunero mezu desberdinak izan ditugu eta ezin zen ezer ere erabaki. Zain gaude. Gainera, zuzendaritzak eskola kontseiluaren erabakiaren zain egon behar

Denis Itxaso, Gobernuordezkaria Euskadin: «Ikusiko dugu, bigarren faseara begira, zein diren aukerak». Hala ere, gogorarazi du «oso gutxi» falta dela ikasturtea amaitzeko»

du. Kontseiluan daude irakasle, ikasle eta gurasoak eta bertako erabakia izango da funtsezkoa».

Hala ere, Hernaniko Institutuan prestaketa lanak eta planak hasi dituzte. Solairuak prestatzen ari dira eta Batxilergo eta DBH 4ko ikasleentzat gelak prestatu dituzte. Gela bakoitzean ikasle erdiak egongo lirarteke. Beraz, gela gehiago jarri behar dira martxan eta distantziak mantentzeko lurra seinaleztatuta dago. Datorren astean zehar bilerak mantenduko dira zer egin jakiteko bigarren faseari begira eta gobernu desberdinetatik zer erabaki eta arau iristen diren.

Egoera berean aurkitzen dira Hernaniko Lanbide Heziketan. «Eskola guztiak berdina gaude, jakin gabe zer erabaki hartuko dugun egunetik egunera gauzak aldatzen doazelako».

Institutuko eta Lanbide Heziketako zuzendaritzak: «Ezin izan dugu erabakirik hartu oraindik bilera desberdinetan, mezua egunez egun aldatu delako eta orain zain gaude»

Sindikatuak ez dute ongi ikusten «gauden egoeran» klaseetara itzultzeko erabakia

Sindikatuak ez daude gustora Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakiarekin. Honela, astearrean, ohar bateratu bat kaleratu zuten ELAK, LABek, Steilasek, CCOOK eta UGTK, aurrez aurreko eskoletara itzultzeko aukera ikastetxe bakoitzaren esku uzteko erabakia «are arduragabeagoa» dela iritzita. «Hezkuntza Sailari eskatzen diogu bere ardurak bere gain hartzeko, osasuna bermatuko duten baldintzak ahalbidetzeko eta itzulera neurriak eragileekin negoziatzeko». Egoera ikusita, protestara deitu zuten, Bilboko Eusko Jaurlaritzaren egoitzaren aurrean, *Hezkuntza komunitatearen osasuna bermatu, neurriak negoziatu* lelopean. **K**

Sindikatuak: «Eskoletara itzultzeko aukera ikastetxe bakoitzaren esku uzteko erabakia are arduragabeagoa da. Hezkuntza Sailari eskatzen diogu bere ardurak bere gain hartzeko»

«Oso pozik gaude jendeak emandako erantzunarekin»

Kimera fisioterapia zentroa gaur hamar egun hasi zen lanean, eta emaitza, Roberto Dos Santosen ustez, «aurretik egindako lan onaren seinale da».

ASTIGARRAGA-HERNANI KIMERA

Kimera fisioterapia zentroa da lehenengo fasearekin batera atea ireki dituen beste zerbitzuetako bat. Hori bai, neurri zorrotzak hartu dituzte errealtate berri honetara egokitzeko. Roberto Dos Santos da bertan lanean aritzen den fisioterapeutetako bat eta lanera nola eta zer moduz itzuli diren azaltzen dio Kronikari.

«Orain erritmoa aldatu da. Protokolo berria jarri dugu mar txan eta bezero bakoitzarekin denbora gehiago egoten gara. Lehen erritmo biziagoa izaten genuen paziente bakoitzarekin, orain denbora gehiago eskatzen digu eta bezero bakoitza sartu eta joaten den garaian desinfektazio-garbitzeta protokoloa bete behar da». Horrek dakar bezero batetik besterako tartea zabaltzen egiten direla. Betiko lanaz gain, garbitzeta eta prestaketa lanak (arropa egokiarekin) egin behar dituzte fisioterapeutek.

Tratamenduarentzako onurak ekarri dituela esaten du Robertok. «Ez gara geratzen, denbora gehiago behar dugu, baina ez gara kexatzen». Fasetik fasera baldintzak aldatzen joango dira eta itxaron-gelak fase honetan, Kimeraren Donostia, Astigarraga eta Hernaniko zentroetan, ez daude gaituta edo habilitatuta. «Pazienteari eskatzen zaio ahalik eta puntualena izatea; batez ere, berandu ez etortzea eta ahal bada, aurretik ere denbora askorekin ez iristea, bestela kanpoan egon behar baitu zain».

«ERTEa onartu zigiten»

Hiru zentroetan hartu dute erabaki hau nahiz eta gauden lehenengo fase honetan itxaron-gelak erabili daitezkeen, beti ere bi metroko segurtasun neurria errespetatuz. «Guk erabaki dugu oraingoz itxaron-gela gabe jarraitzea. Aurreko asteko asteazkenean hasi ginen horrela, eta horrela jarraituko dugu. Horrek bi metroko segurtasun eremua ziurtatzen digu».

Aurreko asteko asteazkenean, maiatzaren 6an ireki zituen atea berriz ere Kimerak. «Konfinamenduan linboan egon gara arauetan ez gintuztelako aipatzen. Badirudi lehen premiazko zerbitzua zela gurea, baina erabaki genuen atea ez zabaltzea. Badaude zentroak erabaki zutenak

lana egitea, baina horretarako jantzi egokiak, kasu honetan EPI egokiak, behar ziren. Guk borrokatu genuen lehen premiazkoak ez izateko, funtzioak ez ginela esan genuen eta honela lortu genuen ez derrigortuak egotera irerkitzera. ERTEak ematea lortzeko pauso bat zen eta beste batzuei berriz ez diete eman».

Lanean protokolo zorrotza betez hasi dira

Ziurgabetasunez betetako hila-betea izan dela aipatzen du Roberto Dos Santosek. «Gu egia esan ongi egon gara eta maiatzaren 6an berriz ere lanean hasi ginen protokolo berriarekin». Protokolo horren arabera bezeroa etorri aurretik dena garbi, desinfektatu egon behar du gelak. «Itxaron-gelarik gabe fisio bakoitza bezero banarekin egoten da. Euskadiko fisioterapeuten eskolak ezarritako protokoloari moldaketak gehitu dizkiogu segurtasuna oraindik eta gehiago ziurtatzeko; bai gurea eta baita bezeroena ere. Bezeroari eskatzen diogu plastikozko galtzerdi edo kaltza batzuk jartzeko, gel hidroalkoholikoarekin garbitzeko eskatzen diogu eta maskarilla eta eskularru kirurgikoak jantzeko esaten diogu. Prestatuta, salara sartzen da eta arropa erantzita berriz ere gel hidroalkoholikoarekin garbitzen da. Tratamendua egiten zaio EPI egokiarekin eta behin amaituta berriz ere garbitzen gara fisioak eta bezeroa jantzi den gela. Ordaintzeko txartela eskatzen dugu».

Behin amaituta, bezeroak eskularruak eta maskarilla etxera eramanez ditzake. Joan aurretik eskuak berriz garbituko dira. Hori bai, behin joanda, sala, kamilla eta bezeroa egon den edozein leku berriz ere desinfektatzen da (aulkiak, arropa uzteko zurtoina) hurrengo bezeroa sartu arte. «Eremu komunak (pasiloa, komunak eta itxaron-gela) bi aldiz desinfektatzen dira egunean zehar».

«Bezerekin erritmoa jaitsi egin dugu, baina denbora gehiago erabiltzen dugu garbiketara»

Bezere bakoitzari denbora gehiago eskaintzeak bere onurak ditu Roberto Dos Santos en hitzetan. «Erritmoa jaitsi egin da pazienteekin, denbora eskatzen du eta lasaiago ari gara lanean bezere-kin. Hori bai, ez gara geratzen eta lana egiteko era aldatu egin da protokoloarekin».

Lanean hasi direnetik jendearen erantzuna oso ona izan da Kimeran. «Jendek nola erantzun zutenaren zalantza genuen, baina 16 urte daramatzagu eta horrek bezereen fidelizazioa ekarri du eta gure kasuan mesede egin digu. Maiatzaren 4tik jendea deika hasi zen ordua hartzeko eta asko eskertzen diegu. Aurreko urteetako lanaren fruitua da eta oso pozik gaude jendeak emandako erantzunarekin. Zalantza genuen ea paziente asko mugitzen den leku batean jendeak beldurra edukiko zuen edo ez bertara etortzeko, baina erantzuna ezin hobea izan da. Segurtasuna bermatu dugu».

Segurtasun eta lasaitasun hori ziurtatzeko Kimeratik infografia lana egin dute eta bezeroa iritsi aurretik protokoloa zein den azaltzen zaio, kontuan zer eduki behar duten eta nola prestatu. «Baliabide guztiak jarri ditugu eta oso ongi doa gauza oraingoz».

Segurtasun eta lasaitasun hori ziurtatzeko Kimeratik infografia lana egin dute eta bezeroa iritsi aurretik protokoloa zein den azaltzen zaio, kontuan zer eduki behar duten eta nola prestatu. «Baliabide guztiak jarri ditugu eta oso ongi doa gauza oraingoz».

Bi motako lesioak, aktibitate faltagatik eta neurritz pasatzeagatik

Arazo fisiko edo lesioen aldetik konfinamenduaren eragina ere nabaritu dute Kimeran. «Fisioen artean komentatu dugu. Bezereak bi motako arazoekin etorri dira. Batzuek, gorputzean mina nabaritu dute jardura edo aktibitate faltagatik eta besteek, arazoak izan dituzte gorputza gehiegi estutu dutelako ohitu gabeak zeudenean edo lehen erabiltzen ez zituzten artikulazioak erabili dituztelako». YouTubeko tutorialen eragina nabarmendu du Roberto Dos Santosek. «Edozeinek jarri dezake YouTube eta bertan esaten zaiona egin dezake, pertsonalizatu gabe enrenamendua edo jardura, bere maila kontuan hartu gabe edo gai dela pentsatuz. Askok lasaiago hasi behar zuten. Eliptika, zinta, bizikleta-rekin... Neurritz kanpo aritu dena ere etorri da arazoekin».

Faseen aldaketekin Kimerak berdind jarraituko du bere jardura. «Fase berrietan murriztu egingo dira mugak, askatasun gehiagorekin, baina guk gure protokoloarekin segiko dugu. Modu honetan lanean jarraituko dugu ekainaren 26ra arte. Presarik ez zaigu sartuko eta konfinamendu honek ere erakutsi digu gelditu eta erritmo frenetiko hori jaisten. Denbora eskaintzeko diogu gauzak ongi egiteari, zutabe sendoak jarri nahi ditugu».



Roberto Dos Santos, Kimerako fisioterapeuta.

«Pazienteari eskatzen zaio ahalik eta puntualena izatea; batez ere, berandu ez etortzea eta ahal bada aurretik ere denbora askorekin ez iristea; bestela, kanpoan egon behar baitu zain»

«Tratamendua egiten da EPI egokiarekin eta behin amaituta, berriz ere garbitu eta desinfektatzen gara fisioak eta bezeroa jantzi den gela. Ordaintzeko txartela eskatzen dugu»

biokbi optika

Alejandra Alcibar
Optiko Optometrista 12.244 zenbakia

Antziola 14
Telf: 943 33 68 86

GURE MERKATARITZA-JARDUERARI EHINGO
DIOGU MAIATZAREN 11N, ASTELEHENA,
COVID-19REN AURKAKO
SEGURTASUN-NEURRI GUZTIEKIN

Segurtasun handiagoa izateko, gure bezeroei eskatzen diegu alde aurretik hitzordua hartzeko.

Optikara joan behar baduzu graduazioa eguneratzeko, lentillak egokitzeko edo begietan nabaritzen duzun beste edozein eragozpen begiratzeko, maskarilla erabiltzea gomendatzen dugu. Azterketa egin ondoren, tresna guztiak desinfektatuko ditugu.

Establezimenduaren barruan, OMEk gomendatutako arauak beteko ditugu: segurtasun-distantzia, eskuak garbitzea, eta eskularru, maskara eta gel hidroalkoholicoa erabiltzea eta, ahal bada, txartelarekin ordaintzeko.

Agur bero bat. Espero dugu laster normaltasunera itzultzea.

Letra zopa Zuhaitz motak

G	A	Z	T	A	I	N	O	N	D	O	A	I	T
I	T	V	P	E	S	M	V	O	K	H	D	N	S
P	M	W	A	R	Z	J	W	T	H	Q	H	T	A
I	H	I	G	E	D	K	V	J	J	Q	A	X	G
K	U	E	O	N	A	F	I	D	T	E	L	A	A
O	R	V	A	P	H	K	N	A	R	Z	T	U	R
N	R	L	U	A	A	Z	A	R	B	P	Z	R	R
D	I	I	W	J	R	X	H	Z	Q	E	A	R	O
O	T	Z	L	I	I	J	U	A	I	L	C	O	N
A	Z	A	V	D	T	U	D	R	G	A	E	N	D
L	A	R	E	J	Z	U	B	B	K	I	J	D	O
Y	G	R	X	R	A	B	O	C	B	I	N	O	A
O	K	A	S	T	I	G	A	R	R	A	A	A	W
D	Y	P	G	O	R	O	S	T	I	A	P	S	X

AKAZIA, EZKIA, GAZTAINONDOA, HAGINA, HARITZA, INTXAURRONDOA, PAGOA, SAGARRONDOA
ASTIGARRA, EZPELA, GOROSTIA, HALTZA, HURRITZA, LIZARRA, PIKONDOA, URKIA

Blokeak

Ietik 5erako blokeak dau-
de, batzuk txikiagoak dira,
adibidez, 1,2,3 zenbakiak
dauzkaten blokeak.

Blokeak, zenbakiz osatu
behar dira, hau da, blokea
bost laukiz osatuta badago,
1,2,3,4 eta 5 zenbakiak
txertatu behar dira. Blokean
aldiz, bi lauki badaude, 1 eta
2 zenbakiak jarri behar dira.
Blokeak ondoan daude,
beraz kontuan eduki behar
da, ezin dutela bi zenbaki
berdinek zuzenean ondoan
egon, ezta diagonalean.

			1		5	
2		4				2
				1		
					5	
	4			2		3
			4			
	3					1

Sudokua

		6	4	5				
8	5	9		1				
6		7			5			
4			8		6		2	1
				3			4	6
7	9							
						4		3
				7	2		1	

Ezberdintasunak



IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia,
akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

EGURALDIA

GAUR

Eguraldiak berdintsu jarraituko du gaur, egunaren lehenengo partean behintzat. Giroa goibela izango da eta euria egingo du. Tenperatura antzekoak edo apur bat altuagoak izango dira. **Min.11° / Max.15°**

BIHAR

Hodeiak gutxitzen joango dira. Goizaldean eta goizean goiz zirimiria egin dezake, baina arratsaldean, ostarte ederrak ikusiko ditugu. Tenperatura maximoak pixka bat igoko dira. **Min.11° / Max.18°**

(euskalmet)

TELEFONO ZENBAKIAK

TAXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALZAIINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korroa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

FARMAZIAK

Egunez: Gomez Kale Nagusia, 14 (Hernani) **943 554892** **Gauz: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**
Goizueta: Nagusia 64 948 514353

Zorionak Estitxu! **14 urte**

Etxekoen partetik


Zorionak Maider! **12 urte**

Zure aitona eta amonaren partez. Maite zaitugu



Bi erlauntzek berdinak ematen dute baina aldeak daude batetik bestera. Ikusten al dituzu? Hamabost dira guztira.

E Man Hamabostekoa...



Buruz behera tente jartzea uste baino arriskutsuagoa da. Hemen, esate baterako, zazpi elementu aldatu dira. Ikusten al dituzu?



...Eta orain zazpikoa



Sudokua

		1		6	
6	2				
3					6
4					5
				3	2
	6		4		

Zeren bila dabilta erleak lorez lore? POLENA biltzen aritzen dira, ezta? Osa itzazu lauki zuriak, hitz hori osatzen dituzten letrak kontuan hartuta (P, O, L, E, N eta A). Gogoratu letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



Itzala

Zein da lorearen itzal zuzena?

EGILEA: Garbine Ubeda (Aurri)
TOKIKOMeko beste hedabideekin elkarlanean argitaraturako atala.

SOLUZIOAK: Sartu www.plazanbazan.eus web atarian eta denbora-pasa hauen soluzioekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.

Orak irakurtzeko aplikazio batekin itakurri



«Ez dakigu oraintxe bertan zer ari den gertatzen; hori da kezkatzen gaituena»

Konfinamendu egoera ezarri zenean uste zenaren kontra, «itxialdi egoerak indarkeria matxistagatik salaketa gutxiago jartzea ekarri du», baina «horrek ez du esan nahi indarkeria kasuak ez daudenik, baizik eta zailtasunak daudela salaketak jartzeko».

URUMEA BERDINTASUNA

Urumea bailarako berdintasun teknikariek bat egiten dute: «egoera hau amaitzean arreta berezia jarri beharko dugu, egoera honetan kontenituta egon direnen jarraipena eginez eta erreparaziorako baldintza eta zerbitzu egokiak eskainiz».

Izan ere, «indarkeria matxista testuinguruaren arabera moldatu» egiten da, eta, beraz, «orain emakumeak ikaragarriko kontentzio lanak» egiten ari dira, eta horrek halako batean «plof» egitea espero da. «Honek aldaketa bat ekarriko du, seguru». Hala azaldu dute Maialen Apezetxea Lujanbio, Leire Goibururu Perez eta Amaia Paz Vallejo, hurrenez hurren, Hernani, Astigarraga eta Goizueta eta Arano-ko berdintasun teknikariek, eta Maite Perurena Loiarte, Goizueta eta Arano-ko gizarteratze hezitzaileak.

Bitartean, «komunitate izaera indartzeak» duen garrantzia azpimarratzen dute. «Estrategia komunitarioak sostengu eta laguntza garrantzitsua dira indarkeriaren biktima diren emakumeentzat, eta egoera honetan, are gehiago».

Kasuak antzematea, arazo

«Itxialdian erasotzaileen kontrol sentazioak gora egiten du». Horregatik, konfinamendu egoeran indarkeria matxista kasuek gora egiteko arriskua bazegoela ikusi zuten berdintasun teknikariek. «Aurrekusten dugu emakume asko etxean geratu direla beren erasotzailearekin. Orduan, uste genuen kasuek gora egin zezaketela. Baina, emakumeek laguntza eskatzeko ere arazo gehiago dituzte. Lehen bide ezberdinak bazen: Osakidetzatik, Gizarte Zerbitzuetatik... Baina orain ezin da atera etxetik. Hor muga ikusten genuen. Telefono deiak ere, segun eta zein den zure egoera, ezin dituzu egin. Izan ere, azken batean, indarkeria da kontrola ezartzeko modu bat. Ez dakigu oraintxe bertan zer ari den gertatzen, hori da kezka-

tzen gaituena. Ikusten genuen kasuak antzemateko arazoak zeudela».

Hori horrela, indarkeria matxista kasuak bizi dituztenentzako arreta zerbitzuak egokitu eta zabaldu behar izan dituzte, baina protokoloak ez dira aldatu. Urumea bailarako udal-terrean martxan jarraitzen dute berdintasun sailtako eta Gizarte Zerbitzuetako telefonoak. Emakundek ere, whatsapp bidezko arreta zerbitzua dauka martxan, telefonoz hitz egin ezin dutenentzako. Eta larrialdi zerbitzuek berdinduz egiten dute lan, 112 eta 092 telefonoetan.

Era berean, «kontutan hartuta duela gutxi arte etxetik kanpo ateratzeko aukera bakanenak erostetako egiteko momentua zela, eta, ondorioz, erasotzailearengandik aldentuta egoteko momentu bakarra», laguntza eskatu edota emateko baliabide eta zerbitzuen berri emateko herrietako dendak erabili dituzte. «Dendetan kartelak jarri ditugu. Harrera ona izan da». Aldi berean, konfinamendu egoera ezartzearekin batera jarri zen martxan farmazietan 'Maskarilla19' kanpaina. «Farmazietan laguntza eskatzeko modua da, badelako baliabide bat nahiko erraza, farmaziara joan zaitezkeelako. Hor egon zitezkeen irtenbide bat». Dena den, azpimarratzen dute, «larrialdi egoera batean bazaude, atera zaitezke kalera. Badirudi ezin duzula atera, eta laguntza eskatzeko bai, atera zaitezke».

Etxean geratzeko mezuari, kritika

Hain zuzen, «zabaldutako mezu horrekin, etxean geratu, kritiko xamarrak bagara», diote, «etxeak ez baitira seguruak emakume guztientzat». Eta aldi berean, «laguntza eskatzeko zailtasuna areagotu» dezake.

«Normalean erasotzaileak inguruko pertsonak izaten dira. Badago mitoa, esaten duena erasotzaileak kanpokoak, ezagutzen ez zaituztenak direla, baina, normalean, izaten dira



Maialen Apezetxea, Hernaniko berdintasun teknikaria.

bikoteak, bikote ohiak edo ingurukoak. Bat-batean esan digute denoi etxean geratu behar dugula. Emakume asko etxean geratu dira beren erasotzailearekin, kartzela batean bezala, harrapatuta». Modu honetan, «ikusezin gelditzen da mugimendu feministatik eta berdintasun politiketarik behin eta berriro mahai gaineratu dena; etxebizitzak direla maiz emakumeentzako arrisku lekuak. Desagerrarazten du eraso sexistak gehienak etxe eta familiaren baitan gertatzen direla. Baita indarkeriak maiz familiaren konplizitate duela ere, eta etxe barruko kontu gisa hartzen da».

Salaketak behera, kontsultak gora

Etxean geratu behar horrek eraginda, seguru asko, «salaketak jaitsi egin dira, baina horrek ez du esan nahi indarkeria egoerak murriztu direnik». Hain zuzen, toki guztietako datuak oraindik bildu ez badira ere, egoeraren beste irakurketa bat ahalbidetzen duten datuak badira.

«Berdintasunerako Ministeritzak argitaratutako datuen

«Indarkeria da kontrola ezartzeko modu bat»

arabera, itxialdiko lehenengo hamabostaldian telefono bidezko kontsultek %12,43 egin zuten gora. Online kontsultek, berriz, %269,57, batez ere, whatsapp bidez, informaziorako oinarriko tresna bihurtzen ari dena, bereziki, kontentziorako».

Bestalde, «Emakunderen apirilaren 16ko datuen arabera, salaketa kopurua erdira jaitsi da. Dei kopurua, berriz, antzekoa izan da, baina kontsulten artean berehalako beharra dutenak areagotu dira, bisita erregimenak eta kustodiekin lotutakoak. Egunero zazpi bat dei jasotzen dituzte. Gipuzkoan ere emakumeek laguntza eskatzen jarraitzen dute, eta indarkeria sexista kasu berriak ezagutu dira, arreta telelanera moldatu behar izan bada ere».

Nafarroari dagokionez, «oraingoz konfinamendu osoko daturik ez» dago. «Nafarroa

«Zabaldutako mezu horrekin, etxean geratu, kritiko xamarrak bagara»

mailan iazko datuekin alderatuz salaketa gutxiago jasotzen ari da». Baina, esan bezala, «horrek ez du esan nahi indarkeria kasuek behera egin dutenik». Hain zuzen, «salaketez gain badago beste mundu bat», diote.

Gertuagoko datuak biltzen ari dira. «Astigarragan ere kasu berriak ezagutu dira, eta telematikoki jarraipen pertsonala eskaini zaie, ohiko baliabideetara bideratzeaz gain».

Emakumeak, kontentzio arketan

Salaketez gain dagoen beste mundu horretaz hitz egitean, kontentzioa aipatzen dute. «Indarkeria egoeretan emakumeak dira erasotzailearen indarkeria eusten dutenak eta baita indarkeriaren aurreko haien erreakzioa ere. Bestalde, itxialdiak bizikidetzak kudeatzeko emakumeen kontentzio gaitasuna



Leire Goiburu, Amaia Paz eta Maite Perurena, Astigarragako eta Arano eta Goizuetako teknikariak.

«Ikusezin gelditzen da mugimendu feministatik eta berdintasun politikatik behin eta berriro mahai gaineratu dena; etxebizitzak direla maiz emakumeentzako arrisku lekuak»

modu ez osasuntsuan areago-tzea ekarri du. Haien buruekiko kontentzioa eta haiekin bizi direnekikoa. Baina, garrantzitsua da ulertzea kontentzioak ez dela esan nahi ez ezer egitea. Arretarako zerbitzuek, maiz, kontentzio hori laguntzea da egiten dutena».

«Testuingurua aldatu den honetan, iruditzen zaigu indarkeria bera aldatuko dela. Emakumeak egiten ari dira ikaragarriko kontentzio lanak; ez indarkeriarekin bakarrik, baizik eta, oro har, bizikidetzan, umeeekin... Denak gaude etxe berean sartuta. Ikaragarriko kontentzio lana egiten ari dira, ikaragarriko saiakera, ez haserretzeko, baina momenturen batean plof egingo du honek, eta azalduko dira ezinegonak edo depresioak... Ez dakigu ondo zer, baina generoarekin lotutako sintoma batzuk, indarkeria gisa identifikatzen ez ditugunak, baina badirenak. Garai batean indarkeria zen indarkeria fisikoa, eta gero ikusi zen indarkeria psikologiko potentia ere bazegoela. Ez dakigu oso ondo zer etorriko den, baina iruditzen zaigu buelta dezentea etorriko dela».

«Azalduko dira generoarekin lotutako sintoma batzuk, indarkeria gisa identifikatzen ez ditugunak, baina badirenak»

Komunitatea, zaintzatik

Etorriko denaren zain egon baino lehen, ordea, badago zeregina. «Denon arteko sostengua eta komunikazioa ezinbestekoak» direla azpimarratzen dute. Zentzu horretan, herritarrek erantzuten ari dira. «Herritarrek badakite konfinamenduan indarkeria egoerak larriagotu daitezkeela eta laguntza eskatzea zailagoa dela. Horrek arreta gehiago jartzea dakarrela uste dugu, eta baita indarkeria egoerekiko ardura gehiago sentitzea ere». Hala behar duela nabarmentzen dute, gainera. «Ez dugu ahaztu behar indarkeria sexista egiturazkoa eta soziala den arazoa dela. Guztion ardura da egoera hauei erantzuna ematea».

Baina moduetan arreta jarri behar da. «Pentsatu behar dugu kezka adierazten duenak lagundu nahi duela, nahiz eta, batzuetan, moduarekin asmatu ez». Gakoa, laguntza behar duena entzutean dago. «Guztion ardura da emakumei laguntza eskaini eta ahal den neurrian beraien iritzi eta nahia errespetatzea».

Zentzu horretan, komunitatearen garrantzia azpima-

INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEKO BALIABIDEAK

ASTIGARRAGA

GIZARTE ZERBITZUAK
943 33 52 32. Zalantzak argitu eta aholkularitza eskatzeko.

BERDINTASUN SAILA

943 50 57 01 edo 638 206 586 (whatsappez ere bai). Zalantzak argitu eta aholkularitza eskatzeko.

GERTU ZERBITZUA

688 804 672 (07:00-21:00). Informazioa eta aholkularitza zerbitzua emateaz gain, sostengu emozionala eta behar den horretan laguntzeko erraztasunak emateko telefonoa, psikologo

eta gizarte langileek erantzuten dutena.

UDALZAINGOA

943 33 50 50 / 943 33 52 30 / 699 487 587

ARANO, GOIZUETA, LEITZA, ARESO

GIZARTE ZERBITZUAK
948 51 08 40 (08:00-14:00). Harrera eta orientazioa eskaintzen da, beharrezko zerbitzuetarako eta zerbitzu espezifikoei sarbidea erraztuz.

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA INTEGRALA EMATEKO LANTALDEA

948 00 49 52 / 948 00 49 53 / eaiv.norte@paua.es

Informazioa, aholkularitza eta esku-hartze psikosoziala eskaintzen ditu. Arreta eta aholkularitza juridikoa ere bai.

HERNANI

ZERBITZU SOZIALAK
943 55 78 54 (08:00-14:30) zerbitzuzozialak@hernani.eus
Aurrez aurreko arreta ematen dute, orain, telematikoki egiten bada ere. Hitzordua eskatu.

BERDINTASUN ARLOA

943 33 70 17 (08:00-14:30) berdintasuna@hernani.eus

UDALZAINGOA

943 24 89 00

ERTZAINZA

943 53 88 40

rratzen dute, bereziki konfinamendu egoera honetan, denok etxean gaudenean, sortu diren kontrol moten artean desberdintasunak nabarmenduz. «Ukaezina da kontrol sozialak gora egin duela, baina ez dago argi horrek indarkeria kasuetan kontentzio gisa joka dezakeenik. Aktibo ditugun edota aktibatu ditzakegun herritarren sareak aztertu behar dira, jakiteko ea emakumei sostengua eman-go dietenak diren, edota erasotzaileenganako kontrol soziala egiten dutenak. Kontrol sozialak jokaera erasokorrak kontrolatzeko funtzioa egin dezake, eta muturreko erasoak saihestu. Baina horrek ez du esan nahi biktima diren emakumei sostengua ematen ari zaienik».

Horretarako behar dira, hain zuzen, komunitateak. «Emakumeentzat eta neskentzat seguruak diren komunitateak dira indarkeria egiturazko arazo gisa ulertzen dutenak, eta ez, zerbait pertsonala bezala». Eta emakumearengan jarri behar dute

arreta. «Indarkeria egoerak oso konplexuak dira, eta kontuz ibili behar da egiten dugunarekin. Oro har, laguntzeko joera dago, eraso jasotzen duena, biktima, babesteko. Baina ea nola babesten dugun. Agian gero ondorioak okerragoak izan daitezke, segun eta zer egiten dugun. Eraso jasaten ari denari galdetzea izango litzateke egokiena: ea laguntza behar duen, ondo ote dagoen... Berarekin harremana mantendu, jarraipen egin, galdetu zer moduz dagoen, entzun. Momentu honetan estrategiak bilatu behar dira horri aurre egiteko, baina, beti, erasotua den horren baimenarekin».

Lagundu nahi duenak zailantzeko ere izan ditzake, noski. «Beste gauza bat da builak entzun eta larrialdi kasu bat bizi denean. Orduan, zuzenean larrialdietara deitu egiten duzu. Baina bestela, komunitate izaera hori indartu behar da ardurarekin jokatu eta pertsona hori zaintzeko, eta ez denaren gainetik pasatzeko. Positiboa da

LARRIALDI EGOERETARAKO

112 edo 092

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO TELEFONO BIDEZKO ZERBITZU ESPEZIALIZATUA

900 840 111 (24 orduz martxan). Berehalako zerbitzuak, doakoak, konfidentzialak eta anonimoak dira. Ez du arrastorik uzten telefono fakturan. 51 hizkuntzetan erantzuten da. Entzumen edota mintzamen urritasunen bat dutenei Telesor app bidez erantzuten zaie.


ESTATU MAILAKO ZERBITZUA

016

016-online@mscbs.es

Informazioa eta aholkularitza juridikoa, estatu mailakoa (24 orduko arreta)

komunitatea hor egotea, baina gehiago zaintza ikuspegitik, eta ez hainbeste, polizia ikuspegitik. Oreka bilatzeak garrantzia du». **K**



«Oso pozik sentitzen gara jendeak gustuko duela jakitean, jarraitzeko gogoa pizten zaigu»

Konfinamendua hasi denetik, Larramendi kalean, egunero arratsaldeko 19:00etan, Nahia Goikoetxea eta Enara Urdangarinek trikitiak hartu, eta balkoitik balkoira, hamaika abesti alai eskaintzen dizkiete, auzotarrei.

HERNANI KONFINAMENDUA ETXETIK

Konfinamendua duela bi hilabete hasi zen, eta ordutik, «egunero-egunero» jardun dute Nahia Goikoetxea eta Enara Urdangarinek, trikitia astindu eta Larramendi kalea girotzen. 10 urte dauzka Nahiak eta Enarak, berriz, 9. Azaldu dute, orain asteburuetan jai egiten dutela, «orain arte egunero-egunero jardun dugu trikitia jotzen, baina egun asko dira hasi ginenetik eta orain asteburuetan jai hartzen dugu!».

Zeini otu zitzaion balkoietan trikitia jotzeko ideia hau?

N.G.: Enarari okurritu zitzaion, Italiako bideo bat ikusi zuen. Nola konfinamendua hasi zenean, jendea balkoira ateratzen zen, eta instrumentuak joz, auzoak girotzen zituzten, eta hau kopiatzea pentsatu zuen. Eta parean bizi garenez, biok egitea pentsatu genuen.

E.U.: Oso polita iruditu zitzaion Italiakoa, eta Nahiak aipatu moduan, kopiatu edo antzerako zerbait egitea proposatu nion, eta aurrera eraman genuen.

Arratsaldeko 19:00etan jotzen duzue trikitia, zer dela eta?

E.U.: Ordu ona iruditzen zaigu, oraindik arratsaldea da, ez dago iluna eta txaloak beranduago datozenez, ordu horretan egiten dugu.

N.G.: Bai, ordu ona iruditu zitzaigun, azkenean ez da ez goiz eta ez da berandu, tartean dago. Lehenengo egunetik gaur arte, beti egin izan degu arratsaldeko 19:00etan. Gainera, 20:00etan hasten dira txaloak, eta orain

jendea ordu horretan ateratzen da kirola egitera. Guk ordurako amaitu dugu saioa, 40-45 minutu egiten baititugu.

E.U.: Batzuetan lehenago amaitzen degu, beste batzuetan luzatu egiten gara.

Nolatan hasi zineten biak batera?

N. G.: Ba egia esan, Enarak eskaini zidan proba bezala egiteko, ea zer moduz moldatzen ginen ikusteko, biak parean bizi baikara, bloke ezberdinetan. Gero gustatu egin zitzaigun eta egunero hasi ginen egiten.

E.U.: Bai, Italiako bideoa ikusi ondoren, pentsatu nuen, Nahiari eskaini behar niola, biak trikitiarekin balkoian jarri eta giro pixka bat jartzeko proposamena. Nahiak nik baino kanta gehiago ditu, eta biok daukagun abestiekin egiten dugu eguneroko saioa, bat berea, hurrengoa nirea, eta horrela, errepertorio osoa jo arte.

N.G.: Abesti asko jotzen ditugu, hauek dira batzuk: *Pintto pintto*, *Uso txuria*, *Zorionak zuri*, *Dorraemon*, *Beti eskamak kentzen*, *Andre Madalen*, *Neska zaharrak*, *Egia da*, *Itsaontzi baten*, *Ama ni neska*, *Kalez kale*, *Gora-behera*, *Beti lasai* eta *Zazpi jauzi*.

E.U.: Amaieran, bakoitzak nahi duena jotzen dugu, amaiera moduan, bakoitzak bere estilora.

Partiturekin, buruz... nola joatzen dituzue abesti hauek? Eta zuen artean, nola komunikatzen zarete?

N.G.: Partiturekin egiten ditugu abestiak. Hhala ere, badakizkigu. Ni adibidez, kalejiretan ate-



Ezkerrean Nahia Goikoetxea eta eskuinean Enara Urdangarin, Larramendi kaleko trikitilariak.

ra naiz; orduan abestiak bada-kizkit.

E.U.: Gainera, aurrez aurre gaude eta horrela komunikatzen gara; agian duda bat daukagu, ea hurrengo abestia zein den, eta balkoitik balkoira argitzen ditugu gure zalantzak.

Nolakoa da bizilagunen jarraera? Gustuko dute?

N.G.: Beste blokekoak ikusten ditugu, eta ez dira asko ateratzen, baina bai, gustuko dute jotzen duguna, egia esan.

E.U.: «Beste bat!» ohiukatzen dute batzuk.

N.G.: Bai! Eta beste batek beti, pena tonuarekin «oh...» esaten du; amaitu dela-eta, triste dagoela dirudi! Egun hauetako batean, nire lagun baten urteak ziren eta *Zorionak zuri* jo genuen, oso polita izan zen.

Eta orduan, nola sentitzen da bat, ikustean, egindako saioa gustukoa izan dela jakitean?

N.G.: Oso-oso ondo sentitzen gara biok, jotzen jarraitzeko gogoa pizten dizu. **K**

kalitatea zure etxeraino
orain garraio kosturik gabe

EUSKAL SAGARDOA	ETSKAL SAGARDOA PREMIUM	GORENAK
6ko kaxa	6ko kaxa	12ko kaxa
16,20 €	21,00 €	24,00 €

www.zelaia.eus whatsapp 647 988 707

eskaintza berezia ekainaren 28rarte, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan